

AIZAK, HI , MUTIL MAINONTZI!

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1. Irakaslearentzako oharrak
2. Ikastunitatearen ibilbidea
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak

2. ATAZAK

- A. ataza: Jolasean
- B. ataza: Negar batean
- C. ataza: Guraso aztoratuak

3. MATERIAL OSAGARRIA

- A. Gurasoen zaletasunak nolako, seme-alabenak halako

4. ERANSKINAK

- I. Giza aberea biziraupenetik aurrera. Desmond Norris-en dokumentalaren zatia
- II. Jolasen zerrenda.
- III. Haur-jolasak. Euskadi Irratia. DB 1.884
- IV. Maribel Aizarna/Benito Lertxundi. Euskadi Irratia. DB 877/1.066
- V. "Jokatu" artikulua.
- VI. Negar batean. *Gogoan izan* filmaren zatiak
- VII. Negar errazekoa? Furundarena/Egües/Elkoro. Euskadi Irratia. DB 486
- VIII. Neska-mutikoei egindako elkarrizketa. Euskadi Irratia. DB 486
- IX. Giza aberea-gene hilezkorrak. Desmond Norris-en dokumentalaren zatia
- X. Giza aberea biziraupenetik aurrera II (testua moldatua)
- XI. Eta zer? A. Lertxundi/S.Calleja/A.Egaña. Euskadi Irratia. DB 1.037
- XII. Baloika. Euskadi Irratia. DB 403
- XIII. Baloika (liburuko pasarte bat)
- XIV. Baloika (A. Epaltzari elkarrizketa). Euskadi Irratia. DB 403
- XV. A eta B artikulua.
- XVI. Seme-alaben kirola. Euskadi Irratia. DB 1.791
- XVII. Seme-alabekin kirola egiteak familia barneko harremana hobetzen laguntzen du

BIDEO-PASARTEAK

<u>A ataza</u>	<u>B ataza</u>	<u>C ataza</u>	<u>Material osagarria</u>
1.- 02.52.29	5.- 03.06.29	11.- 03.35.48	14.- 03.47.59
2.- 02.54.06	6.- 03.10.25	12.- 03.37.46	
3.- 02.55.25	7.- 03.20.25	13.- 03.41.40	
4.- 02.59.25	8.- 03.23.12		
	9.- 03.24.36		
	10.- 03.27.24		

OHARRA: denbora horiek erreferentziak dira.

1. SARRERA

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Eskuetan duzun ikastunitatean jolasa, bazterkeria, kirola eta heziketa izango ditugu hizpide: gure seme-alaben jolasik maiteenak, gure txikitako jolasak, txikitan inor baztertzeko arrazoiak, negarra, txikitako lehia eta gurasoen jokaera, zenbateraino bultzatzen ditugun gure seme-alabak gehiegizko lehiara txiki-txikitatik... Hainbat bideo, irratsaio eta artikulu tartekatuta ditugu eredu-gisa, eta horiek guztiak baliatuko ditugu gogoetarako abiapuntu eta akuilu.

A ataza

Jolasean atazan zeregin nagusi bat izango dute ikasleek: txikitako jolasen berri ematea ahoz. Atazaren abiaburuan, jolasak direla eta, bideoa ikusi eta liburuko bi baieztapenen gainean iritzia eman beharko dute ikasleek. Ondoren, bideoko irudi andana ondo gogoan hartu, eta txikitako jolasak zerrendatu eta sailkatuko dituzte taldean. Sailkatzeko, ordea, euren liburuko artikulua irakurri eta bertako sailkapena izango dute irizpide. Hori bukatzean, talde bakoitzean egindako sailkapenen berri eman beharko dute, eta, ondoren, alderatu egingo dituzte. Jarraian, ikasleek euren liburuko iruzkina eta neska-mutikoen jolasik maiteenen taula aztertu eta hiru ondorio atera beharko dituzte, liburuko galderen laguntzaz. Azterketa egin baino lehen, ordea, ludoteka bateko arduradunari egindako elkarrizketa entzun eta informazio nagusia jasoko dute liburuko taulan. Ludotekako arduradunak bi ondorio ematen ditu. Guk bi ondorio horiek azpimarratu ditugu, ikasleek, era berean, beste hiru atera ditzaten. Ondoren, ospetsu biren (M. Aizarna eta B. Lertxundi) txikitako jolasen zerrendari begiratu bat eman, eta zein zeinena den aurreikusi beharko dute. Gero, bideoa ikusi eta egindako aurreikuspenak alderatuko dituzte. Hori egin eta gero, nork bere txikitako jolasen berri eman beharko du ahalik eta modurik txukunenean. Horretarako, prestaketa-fasean liburuko galderei emandako erantzunak baliatu ahal izango dituzte ikasleek. Azkenik, jokatu/jolastu aditzen erabilera aztertu, eta hainbat arau zirriborratuko dituzte.

B ataza

Negar batean izeneko atazan txikitako jolasetatik negarrera eta bazterkeriara egingo dugu jauzi. Lehendabizi, negarra dela eta, ikasleen ohiturak eta euren seme-alabenak izango ditugu hizpide. Ondoren, bazterkeriari helduko diogu. Ikasleek bideo-pasarte bateko testua berreraikiko dute elkarlanean, diktoglosia teknikaren bidez. Azkenik, bazterkeria hizpide, nork bere txikitako bizipenen berri emango du. Hasteko, ikasleek negarraren inguruko lexikoari begiratu bat eman eta hainbat egoerataro ekartzen saiatu beharko dute. Segidan, hiru ospetsuren jokabidea zein izaten den aurreikusi beharko dute (euren liburuko taulan desordenatuta jarri dizkiegu hiru ospetsu horien ohiturak). Jarraian, irratiko elkarrizketak entzun eta egindako aurreikuspenak alderatuko dituzte. Bide batez, negarraren inguruko lexikoa ikasteko aukera izango dute. Hau egindakoan, nork bere ohituren berri emango du, liburuko galderei erantzunda. Honekin batera, neska-mutikoen ohiturak zein izaten diren jakite aldera, ikasleek beren seme-alabenak adieraziko dituzte, irratian hainbat haurri egindako inkesta aitzakia. Negarraren auzia alde batera utzi eta bazterkeriari helduko diogu. Lehendabizi, ikasleek bazterkeria ageri-agerikoa duen bideo-pasarte bati izenburu egokia aukeratu beharko diote. Ondoren, bideo-pasarte bereko testua berreraikiko dute ikasleek idatziz, diktoglosia teknika erabiliz. Azkenik, hirugarren zeregin nagusiari helduko diogu. Hasteko, ikasleek literatur pasarte bat gaineratik irakurri eta bertako protagonista zergatik baztertzen duten ondorioztatu eta gero, txikitan inor baztertzeko arrazoi ohikoenekin zerrenda bat prestatuko dute. Horren ostean, nork bere txikitako bizipenen berri eman beharko du ahoz taldearen aurrean. Ahalik eta modurik txukunenean egite aldera, ikasleek prestaketa-fasean hartutako oharrak baliatuko dituzte. Ikasleak txikitako esperientzien berri eman bitartean, gainontzekoek bazterkeriaren arrazoiak jasoko dute. Bukatzeko, hiru idazle ospetsuri egindako elkarrizketa baliatuko dugu bazterkeriaren auzian gehiago sakontzeko. Bide batez, helburu hezitzaile polita duen "Eta zer" literatur sail berria aurkeztuko dugu.

C ataza

Guraso aztoratuak atazan kirol-heziketaz eta neurrigabeko lehiak mintzatuko gara. Ikasleen jakin-mina ase eta beraien iritzia eman dezaten ahaleginduko gara.

Atazaren abiaburuan ikasleek A. Epaltzari egindako elkarrizketa entzuteko aukera izango dute, eta baita liburu bereko pasarteren bat irakurtzekoa ere. Jarraian, euren eta euren ezagunen jokabidea zein izaten den adieraziko dute. Ondoren, adituen iritzia ezagutzeko parada izango dute. Lehendabizi, bi artikulua baliatuko dituzte, eta, ondoren, irratiko elkarrizketa bat. Ikasleek, bitan banatuta, artikulua irakurri, informazio nagusia jaso eta elkarki emango diote irakurritakoaren berri. Jasotako informazioa osatze aldera, irratiko elkarrizketa entzungo dute. Azkenik, eztabaidari lotuko gatzaizkio bete-betean. Ikasleek hainbat baieztapenen gaineko iritzia eman beharko dute, baina argudioak ongi prestatuta. Ahalik eta ondoen burutu beharko dute mahai-ingurua. Horretarako, aldez aurretik txanda luzearen artikulazioak aztertuko dituzte. Bukatzeko, eztabaidan artikulazio horiek txukun erabili ote dituzten aztertuko dute denon artean, zuk lagunduta (mahai-inguru horiek bideoan hartzeko gonbita egin nahi dizugu, artikulaziook txukun aztertuko badituzue).

Material osagarriak

Gurasoen zaletasunak nolako, seme-alabenak halako atazan zaletasunak gurasoengandik seme-alabetara igarotzeaz jarduteko aukera eskaintzen dugu.

Abiapuntu gisara, beraien zaletasuna seme-alabei pasa dieten pertsona ezagun edo ospetsuen izenak zerrendatzeko eskatuko diegu, eta horren gainean hitz egiteko. Ondoren, mendi-elkarte batekoek egindako txango baten bideoa ikusi, eta liburuan eskaintzen zaien taula baliatuz, informazioa jasotzeko eskatuko diegu.

Hurrengo urratsa da beraien esperientziaz jardutea; alegia, seme-alabei beraien zaletasunak transmititzen inolako ahaleginik egin dutenentz, eta zein balorazio egiten duten.

Jarraian, seme-alabekin kirola egitearen gaineko artikulua bat abiapuntu, jokabide horren onuren gainean jarduteko aukera izango dute.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena



A. ATAZA: JOLASEAN

- Testu bat irakurri, eta jolasak sailkatu.
- Egindako sailkapenaren berri eman.
- Ludoteka bateko arduradunari irratian egindako elkarrizketa entzun, eta informazio nagusia jaso.
- Haurren jolas maiteenak zein diren aztertu, eta ondorioak atera.
- Pertsonaia ospetsu biren txikitako jolasak aurreikusi.
- Nork bere txikitako jolasen berri eman.
- Jokatu/jolastu aditzen erabilera aztertu.

MIN/IRAK/ENTZ



B. ATAZA: NEGAR BATEAN

- Negarraren inguruko lexikoa aztertu, eta hainbat egoeraren arabera, sailkatu.
- Negarra dela eta, pertsonaia ospetsu batzuen jokaera ondorioztatu.
- Elkarrizketa entzun, eta egindako aurreikuspena egiaztatu.
- Negarraren gaineko esamoldeak transkripzioan bilatu.
- Negarra dela eta, nork bere eta beren seme-alaben ohituren berri eman.
- Negarraren gaineko atsotitzak aztertu.
- Bideo-pasarteak ikusi, eta izenburua jarri.
- Entzundako testua berreraiki, ikaskideekin elkarlanean.
- Testua irakurri, eta inor baztertzeko arrazoia zein den antzeman.
- Nork bere txikitako bizipenen berri eman.

MIN/IRAK/ENTZ/IDAZ



C. ATAZA: GURASO AZTORATUAK

- Literatur pasarte bat entzun, eta bertan ageri den giroa deskribatu.
- Elkarrizketa entzun, eta egindako aurreikuspena egiaztatu.
- Irratiko elkarrizketa entzun, eta informazio nagusia jaso.
- Gurasoen jokabidea dela eta, nork bere bizipenen berri eman.
- Artikulua irakurri, eta elkarri kontatu.
- Irratiko elkarrizketa entzun, eta hartutako informazioa alderatu eta osatu.
- Testu-antolatzaileak aztertu.
- Txikitako kirolaz eta heziketaz eztabaidatu.
- Ikaskideek erabilitako testu-antolatzaileak aztertu.

MIN/IRAK/ENTZ/IDAZ



MATERIAL OSAGARRIA

A. GURASOEN ZALETASUNAK NOLAKO, SEME-ALABENAK HALAKO

- Erreportaia bat ikusi, eta galdetegiari jarraiki, hainbat informazio jaso.
- Seme-alabei gure zaletasunak transmititzeaz eztabaidatu.
- Artikulu bat irakurri, arrazoiak jaso eta norberarentzat garrantzitsuenak direnak aukeratu.

MINTZ/IRAK/ENTZ/IDAZ

3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU OROKORRA

- Ikasleek txikitako jolasen, negarraren eta bazterkeriaren gaineko gogoeta egin, eta, heziketa eta kirola direla eta, neurrigabeko lehiari buruz eztabaidatzea.

AZPIGAIK

- Txikitako jolasak
- Negarra dela eta, norberaren jokabideak eta seme-alabenak
- Bazterkeria eta inor baztertzeko arrazoiak
- Heziketa eta kirola: neurrigabeko lehia

HIZTEGIA

- Negarraren gaineko lexikoa (B1)

ELKARRERAGINA

- Txikitako jolasak sailkatzea, testu batean oinarrituta. (A1)
- Haurren jolasik maiteenak aztertu, eta hainbat ondorio ateratzea. (A2)
- Txikitako jolasen berri elkarri ematea. (A3)
- Negarra dela eta, nork bere ohituren berri ematea. (B1)
- Negarra dela eta, nork bere seme-alaben jokabidearen berri ematea. (B1)
- Entzundako testua berreraiki elkarlanean. (B2)
- Txikitako jasandako/bizi izandako bazterkeriaren baten berri elkarri ematea. (B3)
- Neurrigabeko lehia dela eta, nork bere jokabidearen berri ematea. (C1)
- Irakurritako artikulua elkarri azaltzea. (C2)
- Nork bere iritzia azaltzea, eta ikasleekin eztabaidatzea. (C3)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Irratiko elkarrizketa entzun eta informazio nagusia jasotzea. (A2,B3 eta C1)
- Pertsonaia ospetsuen datuak irakurrita, aurreikuspenak egitea munduaren ezagutzan oinarrituta, eta aurreikuspenak alderatzea. (A3, B1))
- Ahozko kontaktaren plangintza egitea. (A3, B3)
- Bideo-pasarte bat ikusi, eta izenburu egokia aukeratzea. (B2)
- Litaratur pasarte bat irakurri, eta bertan ageri den arrazoiak antzematea. (B3)
- Literatur pasarte bat entzun, eta bertako giroa deskribatzea. (C1)
- *Egunkariako* artikulua bat irakurri, eta iruzkinak egitea. (C1)
- Artikulu luze bat irakurri, eta informazio nagusia jasotzea. (C2)
- Irratiko saio bateko elkarrizketa entzun, eta lehendik hartutako ideiak alderatzea eta osatzea. (C2)
- Eztabaida batean aldeztuko diren arrazoiak alde aurretik zirriborratzea. (C3)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Jokatu/jolastu aditzen erabilera aztertu, egindako itzulepenetan eta artikulua batean oinarrituta. (A3)
- Negarraren inguruko lexikoa aztertu, eta hainbat egoerara ekartzea. (C1)
- Negarraren inguruko lexikoari begiratu bat ematea, eta transkripzioak irakurrita aztertzea. (C2)
- Negarraren inguruko atsotitzak aztertu eta baloratzea. (C1)
- Testu-antolatzaileak aztertzea, eta euren erabilera baloratzea. (C3)

2. ATAZAK

A ATAZA: JOLASEAN

(155')

Helburu nagusia:

- Nork bere txikitako jolasen berri elkarri ematea.

Helburuak:

- Testua irakurri, eta jolasak sailkatu.
- Egindako sailkapenaren berri ematea.
- Ludoteka bateko arduradunari irratian egindako elkarrizketa entzun, eta informazio nagusia jasotzea.
- Neska-mutikoen jolasik maiteenak aztertu, eta hiru ondorio ateratzea.
- Pertsonaia ospetsu biren txikitako jolasak zein diren aurreikustea, munduaren ezagutzan oinarrituta.
- Nork bere txikitako jolasen berri elkarri ematea.
- Esaldi batzuk euskaratzea eta egindako itzulpenak baloratzea.
- Jokatu/jolastu aditzen erabilera aztertzea eta arau batzuk zirriborratzea, testu bat oinarri.

Zertan den:

Ikastunitatearen lehen ataza honek hiru atal nagusi biltzen ditu bere baitan:

Lehenengoan, ikasleek txikitako hainbat jolas sailkatuko dituzte, eta egindako sailkapenaren berri emango diote elkarri. Horretarako, jolasen sailkapena ematen duen artikulu bat izango dute eskura, irakurri eta sailkapena egin ahal izateko.

Bigarreanean, neska-mutikoen jolasik maiteenak izango ditugu hizpide. Ikasleek hiru ondorio atera beharko dituzte. Ludoteka bateko arduradunari egindako elkarrizketa izango dugu abiapuntu. Ondoren, ikasleek jolasik maiteenen taula aztertu eta hainbat ondorio aterako dituzte. Zeuk bideratu beharko duzu ikasleen arreta, ondoriorik aterako badute. Feedbacka zure esku utzi dugu.

Hirugarrenean, ikasleek euren txikitako jolasen berri emango diote elkarri. Ez dira hutsetik abiatuko, ordea: M. Aizarnaren eta B. Lertxundiren txikitako jolasen berri izango dute, baina horren aurretik, horien txikitako jolasak zein ziren aurreikusi beharko dituzte. Jarraian, bideoa ikusi eta aurreikuspenak egiaztatuko dituzte. Ondoren, nork bere jarduna prestatuko du, hainbat galderari erantzunda. Feedbackaren etapan, ikasleek aurkezpen bereziena edo xelebreena aukeratuko dute. Azkenik, ikasleek zenbait esaldi euskaratu eta jokatu/jolastu aditzen erabilera aztertuko dute, testu bat oinarri.

Prozedura:

1

Atazaurrea: jolasak zerrendatu (15')

- Jarri jolasari buruzko lehen bideoa (1. bideo-pasarte / I. eranskina). Ikasleek adi-adi ikusiko dituzte bertan ageri diren irudiak. Ondoren, euren liburuko baieztapenak irakurri, eta ados dauden esan beharko dute. Denon artean iruzkinak egin. (5')

BAIEZTAPENAK:

1. Txikitan asko jolastutako gizakiak hobeto bizi izaten dira.
2. Bizimodu mugatua eta geldoa ezin okerragoa izan daiteke haurrentzat.

- Bigarren bideo-pasarte jarri aurretik, esaiezu ikasleei bertan hainbat eta hainbat jolasen irudi-zaparrada ikusiko dutela eta saiatzeko ahalik eta gehienak gogoan hartzen. Ikusi 2. bideo-pasarte. (2')
- Hirunaka bilduta, ikasleek bideoan azaldutako jolasak zerrendatuko dituzte euren liburuan. Jolasen bat euskaraz nola den ez balekitez, gazteleraz jaso dezakete. Kontua da ahalik eta jolas gehien gogoratzea. (3')
- Denon artean aztertu zerrenda, eta osatu ezagutzen dituzten beste jolas batzuekin. Gazteleraz jaso dituzten jolasen izenak euskaraz nola diren esateko unea duzu hau. (5')

Ataza: sailkatu, eta sailkapenaren berri eman (20')

- Ikasleek, hirunaka bilduta, zerrendatutako jolasak sailkatu egin beharko dituzte. Horretarako, liburuko sailkapena irakurri (II. eranskina: "Jolasen zerrenda"), eta horren arabera kokatuko dituzte jolasak horretarako duten taulan. (10')

Gaitasun espaziala handitzeko	
Hobeto sozializatzeke	
Elkartasuna hobetzeko	
Arintasuna handitzeko	
Kontzentrazioa handitzeko	

- Talde bakoitzeko eledun batek egindako sailkapenaren berri emango du, eta denon artean egindako sailkapenak alderatuko dituzte. Kontua ez da inor konbentitzea, egin dituzten sailkapenak alderatzea baizik. (10')

2

Atazaurrea: elkarrizketa entzun, eta informazioa jaso (10')

- Azaldu pixka batean ikasleei zer egin behar duten. Haur-jolasei buruzko irratiko elkarrizketa entzun (3. bideo-pasarte / III. eranskina) eta ikasleek oharrak hartu beharko dituzte, guk lehendik aukeratu ditugun lau punturen inguruan. Horretarako, liburuko taula baliatuko dute. (5')

Lehen eta orain. Ondorioak	Jolas kooperatiboak	Euskal haur-jolasak	Ludotekaren helburua
1. Lehen kalean gehiago ibiltzen ziren, kale-bizitza gehiago; orain, oso gutxi. 2. Orain jostailuekin aritzen dira gehiago lagunekin baino. Gero eta indibidualistagoak, talde-jolasa galtzen ari da.	- puzgarriak zapaldu - patinetan ibili	- soka-saltoa - abestiak ikasten saiatzen dira.	- Haurrak heztea jolasaren bidez. Jolasa tresna da haurrak hezteko.

- Hartutako oharrak alderatu, eta osatu denon artean. Bideratu ikasleen arreta bi ondorio nagusietara. Izan ere, ondorengo atazaostean ondo gogoan izan beharko dituzte. (5')

Ataza: taula aztertu eta ondorioak atera (15')

- Ikasleek liburuko iruzkina eta taula irakurri eta aztertu ondoren, hirunaka jarrita, hainbat ondorio atera beharko dituzte. Horretarako, atazako bi ondorio horiek kontuan hartu, eta euren liburuko hiru galdera horiek gogoan proposatutako gaiez arituko dira.

IRUZKINA:

Mutikoak mutikoekin...

Haurrek gizartearen rola jolasaren bidez ikasten dituztenez, ez da komeni jostailu sexistak larregi erabiltzea. Hala ere, mutikoen %2k bakarrik jolasten du panpinekin eta neskatoen %6 besterik ez da dibertitzen kotxeekin.

ESPAINIAKO HAUREN HAMAR JOSTAILU MAITATUENAK

Mutikoak		Neskatoak	
Bideo-jokoak	%61	Pelutxeak eta antzekoak	%54
Kirol-jokoak eta -jostailuak	%60	Misterio-jokoak	%41
Mahaiko futbola eta...	%52	Kirol-jokoak eta -jostailuak	%39
Tren elektrikoak...	%46	Galdera/erantzunak	%36
Zientzia-jokoak	%43	Bideo-jokoak	%33
Misterio-jokoak	%43	Mozorroak	%31
Ibilgailuak	%42	Zientzia-jokoak	%31
Maketak	%39	Musika-tresnak	%30
Eraikuntzak	%37	Panpinak	%30
Mahai-jokoak	%37	Mahai-jokoak	%29

GALDERAK:

1. Iruzkina dela eta, zer duzue esateko?
2. Saikapena ikusita, zer ondorio atera daiteke? Mutikoen eta neskatoen artean alderik ikusten al duzue? Bakarka aritzeko jokoak ala taldean aritzekoak izaten dira gaurko neska-mutikoek nahiago dituztenak?
3. Zuen seme-alaben kasuan ere hor ageri diren horiek al lirateke maitatuenak?

Feedbacka (5')

- Ikasleek talde txikitik ateratako ondorioen berri emango dute. Seguruena, ondorio horiek alderatu nahiko dituzte. Bidera ezazu, beraz, ondorengo alderatze-lan hori.

3

Atazaurrea: aurreikuspena egin, eta egiaztatu (25')

- Galdetu ikasleei ea badakiten zein diren Maribel Aizarna eta Benito Lertxundi. Azaldu. (3')
- Euren liburuko jolasen zerrendari eman beharko diote begiratu bat oraingoan. Bertan ageri diren jolasak (hain ezagunak ez diren horiek) zertan diren adieraziko dute talde txikian labur-labur. (5')

Zubirik zubiri	
Patinen gaineko hockeya	
"Aceitero-vinagrero"	
Txiba	
Esku-pilota	
Tiragoma	
Soka-saltoa	

- Hirunaka bilduta, adieraz dezatela, beren iritiz, zein jolas den batarena eta zein bestearena. Arrazoiak eman ditzatela. (5')
- Denon artean hitz egin, eta alderatu pixka batean taldeka egindako aurreikuspen horiek. (5')
- Bideoa ikusi (4. bideo-pasartea/ IV. eranskina), eta egiaztatu ea ikasleak zuzen ala oker ibili diren. (7')

Zubirik zubiri	M
Patinen gaineko hockeya	B
"Aceitero-vinagrero"	M
Txiba	B
Esku-pilota	B
Tiragoma	B
Soka-saltoa	M

Ataza: nor bere txikitako jolasen berri eman (25')

- Launaka bilduta, nor bere txikitako jolasen berri emango du. Ikasleek bereziena-edo aukeratu beharko dute.
- **Prestaketa:** Liburuko galderei erantzungo diete ikasleek banaka. Erantzunak ohar modura idatziz jaso ditzatela. (5')
 - Non aritzen zineten jolasean?
 - Nortzuk? Zenbat lagun?
 - Nola banatzen zenituzten rolak?
 - Zertan aritzen zineten jolasean?
 - Nola jolasten zinetan horretara?
 - Tresneria behar izatera, nola moldatzen zineten?
 - Pasadizorik?
 - Egun gogoangarririk?
- **Azalpena:** Ikasleek beren txikitako jolasen berri emango diote elkarri. Lehendabizi, nor bere azalpena egingo du, eta, ondoren, horren gainean hitz egingo dute. (15')
- **Feedbacka:** Ikasleek lau jardun horietatik bakarra aukeratuko dute; beren ustez, bereziena edo xelebreena. (5')

Feedbacka (10')

- Aukeratutako ikasleek oraingoan taldearen aurrean txikitako jolasen berri eman beharko dute. Emaiezu denbora apur bat beren jarduna prestatzeko. Horretarako, batetik lehendik hartutako oharrak birpasatuko dituzte, eta, bestetik, zure laguntza izango dute behar dituzten baliabideak topatzeko.

Gramatika eta diskurtsoa: jolasean ibili eta musean jokatu (30')

- Binaka jarrita, ikasleek euren liburuko esaldiak euskaratuko dituzte. (10')

1. Vamos a jugar a pala.

Egingo al dugu / Ibiliko al gara / Jokatu al dugu palan?

2. Hemos estado jugando a la gallinita ciega

Itsumandoka ibili gara / aritu gara.

3. Jugando al escondite se nos ha perdido un niño.

Gordeketan genbiltzala / ari ginela, ume bat galdu zaigu.

4. La semana que viene jugaremos un partido de fútbol decisivo

Datorren astean futbol-partida erabakigarria jokatu al dugu.

5. No me gusta jugar al ajedrez

Ez zait gustatzen xakean egitea / jokatzeari...

6. Antes los niños no solían jugar a la comba, preferían jugar a coger

Lehen mutilak ez ziren ibiltzen / aritzen soka-saltoan, nahiago izaten zuten harrapaketa aritzea / jardutea / ibiltzea...

7. Todos los domingos se juegan el café al mus.

Igandero kafea jokatzen dute musean.

8. No es conveniente enseñarles a jugar a las cartas cuando son tan pequeños, ya aprenderán

Ez da komeni kartetan horren txikitik irakastea/erakustea; ikasiko dute.

9. De pequeños siempre solíamos jugar en la calle, no como ahora que siempre están metidos en casa

Txikitik beti kalean ibiltzen ginen jolasean, ez orain bezala, beti-beti etxean sartuta.

10. A pocos niños veras jugando a las muñecas; y pocas niñas hay que les guste los coches

Mutil gutxi ikusiko duzu panpinekin jolasean, eta neska gutxi dira kotxeak maite dituztenak.

- Ondoren, liburuko "Jokatu" izeneko artikulua irakurri (V. eranskina), eta jolastu/jokatu aditzen erabilera aztertuko dute. Horretarako, liburuko galderei erantzun diete binaka jarrita. (10')

GALDERAK:

- Zein da hitz horien arteko aldea?
- Nola esaten da euskaraz jugar ...
 1. "a pala"?
 2. "a la comba"?
 3. "a la gallinita ciega"?
 4. "a cartas"?
- Zein dira izen horiek hartu ohi dituzten deklinabide-markak?

Jokatu: da/du. **1.** Joko edo kirolean jardun. *Pilotan jokatu ziren. Julen Gerrerok ondo jokatu zuen igandean.* **2.** Ekintza batean jardun, adierazten den eran jardun. *Era lotsagarrian jokatu du.* **3.** Joko edo kiroleko emaitzez apustua egin. *Afaria jokatu zuten musean.* **4.** Norbait bere kalterako zerbait egin. *Ederra jokatu didak!...*

Jolastu. Da. **1.** Jolasaren bidez atsegin hartu, jolasean ibili, jolas egin. **2.** Zerbait edo norbait behar ez den seriotasunez ez hartu. *Sentimenduekin ez da jolastu behar.*

Jolas. **1.** Atsegin edo atsedean hartzeko edozein jarduera, olgeta, joko (dirurik jokatzen ez dena) edo kirol. *Ez dira horiek haur-jolasak.*

Jokatu zertan: musean, palan, kartetan...

- Azkenik, egindako azterketatik abiatuta, euskaratu dituzten esaldiak birpasatu eta zuzendu egingo dituzte. (10')
- Une egokia da hau batetik bestera ibili eta ikasleei beharreko azalpena emateko.

Helburu nagusia:

- Negarra dela eta, norberaren jokabideez eta seme-alabenez hitz egin eta bazterkeria dela eta, nork bere bizipenen berri elkarri ematea.

Helburuak:

- Bideoa ikusi eta negar egiteko arrazoia zein den antzematea.
- Negarraren gaineko lexikoari begiratu bat ematea eta, hainbat egoeraren arabera, sailkatzea.
- Negarra dela eta, A. Furundarena, A. Elkoro eta M. Eguesen jokabideak aurreikustea.
- Irratiko elkarrizketak entzun, eta egindako aurreikuspenak egiaztatzea.
- Transkripzioak irakurrita, negarraren gaineko lexikoa jasotzea.
- Negarra dela eta, nork bere ohituren berri ematea.
- Irratiko elkarrizketa entzunda, informazio nagusia ateratzea.
- Negarra dela eta, nork bere seme-alaben jokabidea zein izaten den adieraztea.
- Negarraren gaineko atsotitzak aztertu eta baloratzea.
- Bideo-pasarte bat ikusi, eta izenburu egokia aukeratzea.
- Entzundako testu bat berreraiki elkarlanean, diktoglosia izeneko teknikaren bidez.
- Literatur pasarte bat gainetik irakurri, eta arrazoia antzeman.
- Inor baztertzeko arrazoiak zerrendatu.
- Bazterkeria dela eta, txikitari jasandako/bizi izandako esperientziaren baten berri elkarri ematea.
- Irratiko elkarrizketak entzun eta informazio nagusia jaso.

Zertan den:

Ataza honek hiru mugarri ditu bere ibilbidean:

Lehenengoan, negarraren gaineko lexikoari begiratu bat eman, aztertu, eta, hainbat egoeraren arabera, sailkatu egingo dute. Bideoan agertuko den egoeraren arrazoia antzeman, euren liburuko taulako egoerak aztertu, eta banatu egingo dituzte. Ondoren, negarraren gaineko lexikoari begiratu bat eman, eta sailkatzen saiatuko dira, lehendik aztertuta dituzten egoera horien arabera. Feedbackaren etapan erne ibili beharko duzu sortuko diren zalantzak argitzen.

Bigarrenean, negarra dela eta, ikasleen eta euren seme-alaben ohiturak izango ditugu hizpide. Ikasleek hiru pertsonaia ospetsuren jokabideak aurreikusiko dituzte. Ondoren, irratiko elkarrizketak entzun, eta egindako aurreikuspenak egiaztatuko dituzte. Une honetan, transkripzioak aztertu eta negarraren inguruko lexikoa jasotzeko aukera izango dute. Gero, nork bere ohituren eta bere seme-alabenen berri emango diote elkarri. Beren seme-alabenei heldu baino lehen, ordea, irratiko elkarrizketak entzun, eta, neska-mutikoen jokabideak direla eta, oharrak hartuko dituzte. Azkenik, negarraren gaineko atsotitzak aztertu eta baloratuko dituzte.

Hirugarrenean, ikasleek bazterkeria ageri-ageriko duen bideo-pasarte bateko testua berreraikiko dute elkarlanean, diktoglosia teknikari jarraiki. Diktoglosiari bete-betean heldu baino lehen, ordea, bideo-pasarte horretarako izenburu egokia aukeratu beharko dute. Azkenik, feedbackaren etapan lau proposamen dakartzagu, zeuk egokien deritzozuna aukeratu eta erabili dezazun.

Laugarrenean, txikitako bazterkeriaren gaineko bizipenak kontatuko dizkiote elkarri ikasleek. Hasteko, literatur pasarte bateko arrazoia antzeman ondoren, inor baztertzeko arrazoiak zerrendatuko dituzte. Gero, nork bere jarduna prestatuko du, hainbat galderari ohar modura erantzunez. Azkenik, bazterkeria jorratzen duen literatur sail baterako liburu bana idatzi duten hiru idazle ezaguni egindako elkarrizketa entzun, eta informazio nagusia jaso beharko dute ikasleek. Feedbacka zeuk bidera dezazun nahi dugu; horretarako, idazleok aipatutako hainbat kontu interesgarri baliatu ahal izango duzu.

Prozedura:

1

Atazaurrea: bideo-pasartea ikusi, eta negar egiteko arrazoa zein den aurrez ikusi (5')

- Jarri "Gogoan izatekoa" filmetik ateratako pasartea (5. bideo-pasartea / VI. eranskina: Negar batean). Bertan, Meg Ryan, kotxez irratia piztuta etxera doala, negarrez ari da, irratian Tom Hanks-ek kontatzen duen istorioa entzunda. Ikasleek bideoa ikusi eta besterik gabe antzeman beharko dute negarrez hastearen zioa.

Atazaurrea: egoerak aztertu eta banatu (5')

- Ikasleek euren liburuan ageri diren egoerei begiratu bat emango diete. Bertan hainbat egoera ageri dira negarra eragin dezaketenak. Ikasleek, binaka jarrita, esan dezatela horietako zeinek eragingo liekeen negarra helduei eta zeinek haurrei.

Jokorako/jolaserako aukeratua ez izana	
Aberriaren ereserkia joko olinpikoetan entzutea	
Neska-lagunarekin/mutil-lagunarekin harremana hautsi izana	
Urruti bizi den senidearen eskutitza Gabonetan jasotzea eta irakurtzea	
Gurasoek errieta egiten digute gure errua izan gabe	
Zinean film erromantiko batean azkenean dena ongi irten eta amaiera zoriontsua ikustea	

Ataza: negarraren inguruko lexikoa taulako egoeren arabera sailkatu (10')

- Ikasleek, hirunaka jarrita, euren liburuko lexikoari begiratu bat eman, eta sailkatu egin beharko dute, arestiko egoeren arabera. Sailkapena arbitrario samarra izan liteke; beraz, arrazoitzen dituzten guztiak onartu beharko dituzu. Era berean, prest egon ikasleen zalantzak argitzeko.

- Inguruan zebilkion, **negar samina zeriola**.
- Pozaren pozak **negar gozoak** aterako dizkizu.
- Negar samur isila**.
- Negar ugariak** isurarazi dituztenak.
- Negar-malko mardulak**.
- Negar-anpuluak jausten** zitzaizkion bere begietatik.
- Han izango da **negar-marraska** eta hortz-karraska.
- Negar-zotinka** hasi zen.
- Badu zergatik **negarrez egon**.
- Negarrari ezin utsirik**.
- Negarretan urtzen**.
- Negar eta negar** hasi zen.
- Negar-aspertu nahi** eta malkorik ezin lehertu.
- Negargarria**
- Pozak **negar eragiten** zidan.
- Bere gelan sartu eta **negarrari eman** zitzaion/zion
- Agurea **negar batean zegoen**.
- Gure haurra zein **negar-ontzia** den

- 19. **Kandela-negarrak.**
- 20. **Negargale: negargura**
- 21. Egoera **negargarrian.**
- 22. Aizak, hi, mutil **mainontzi**; hurrengorako goraintzi; ez al hekien hor pipa hartzea ez zela lizentzi?

Feedbacka (5')

- Talde bateko bozemaileak egindako sailkapenaren berri emango du. Denon artean hitz egin aldeez eta zalantzez.

2

Atazaurrea: aurreikuspena egin (10')

- Negar egitea dela eta, ikasleek M. Eguesen, A. Furundarenaren eta A. Elkororen ohiturak zein izan daitezkeen aurreikusi beharko dute. Horretarako, euren liburuan dituzten esanak, argazkiak eta datu biografikoak lotu beharko dituzte. Hirunaka egingo dute lan, eta loturak arrazoitu egin beharko dituzte. (5')

ARIKETA:

<p>Maider Egues:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Kazetaria, telebistako aurkezlea (jaiak 98) o Arrasatearra, 30 bat urte inguru o Bizia, sinpatikoa 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez, ez naiz negar errazekoa. - Kosta egiten zait, normalki aguantatu egiten dut. Dena den, okasioak permititzen badit, egin egiten dut. Ona da, gainera, negar egitea. - Azken bolada honetan negar egiteko arrazoi gutxi izan dut. - Joan den larunbatean egin nuen negar azkeneko aldiz. Barrez lehertzen hasi ginen eta negarrez ere bai.
<p>Aitor Furundarena:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Akordeoilaria, gaztea o Herriz herri ibili ohi da akordeoia jotzen bere taldearekin batera 	<ul style="list-style-type: none"> - Aspaldi-aspaldi izan zen, azkeneko aldiz orain dela 19 urte egin nuen, ondo akordatzen naiz. Negarretan hasi eta ezin bukatu. - Egun hartan ikaragarri egin nuen negar amorrazioz eta inpotentziaz. - Normalean pelikula batekin ez dut negarrik egiten. - Nik uste dut gaztetan errazago egiten dela negarra, edadearekin ikasi egiten da hainbat egoera onartzen. - Ona da, lasaitu egiten zara negar eginda.
<p>Aitor Elkorro:</p> <ul style="list-style-type: none"> o Elgetakoa, 40 urte inguru o Pilotaria o Eskuz banakako finala jokatu da 	<ul style="list-style-type: none"> - Negar errazekoa naiz ni, sentimentala eta erromantikoa naizelako. - Ez naiz ezkututzen ibiltzen, ez dit lotsarik ematen negarra egiteak. - Ez dut zehazki gogoratzen noiz egin nuen negar azken aldiz, baina orain dela gutxi. Musikarekin edo pelikula bat ikusten egingo nuen azken aldiz. - Negar isilekoa naiz, malko lodikoa. Begiak gorri-gorri jartzen dira.

- Denon artean alderatu ikasleek egindako aurreikuspenak. (5')

Ataza: egindako aurreikuspena egiazatu (10')

- Grabaketa jarri (6. bideo-pasarte / VIII. eranskina: "Neska-mutikoei egindako elkarrizketa"), ikasleek egindako aurreikuspenak zuzenak diren egiazta dezaten.

ERANTZUNA:

Maidar Egues	<ul style="list-style-type: none"> - Negar errazekoa naiz ni, sentimentala eta erromantikoa naizelako. - Ez naiz ezkututzen ibiltzen, ez dit lotsarik ematen negarra egiteak. - Ez dut zehazki gogoratzen noiz egin nuen negar azken aldiz, baina orain dela gutxi. Musikarekin edo pelikula bat ikusten egingo nuen azken aldiz. - Negar isilekoa naiz, malko lodikoa. Begiak gorri-gorri jartzen dira.
Aitor Furundarena	<ul style="list-style-type: none"> - Ez, ez naiz negar errazekoa. - Kosta egiten zait, normalki aguantatu egiten dut. Dena den, okasioak permititzen badit, egin egiten dut. Ona da, gainera, negar egitea. - Azken bolada honetan negar egiteko arrazoi gutxi izan dut. - Joan den larunbatean egin nuen negar azkeneko aldiz. Barrez lehertzen hasi ginen eta negarrez ere bai.
Aitor Elkoro	<ul style="list-style-type: none"> - Aspaldi-aspaldi izan zen, azkeneko aldiz orain dela 19 urte egin nuen, ondo akordatzen naiz. Negarretan hasi eta ezin bukatu. - Egun hartan ikaragarri egin nuen negar amorrazioz eta inpotentziaz. - Normalean pelikula batekin ez dut negarrik egiten. - Nik uste dut, gaztetan errazago egiten dela negarra, edadearekin ikasi egiten da hainbat egoera onartzen. - Ona da, lasaitu egiten zara negar eginda.

Feedbacka: hartutako oharrak alderatu (5')

- Hartutako oharrak alderatu eta osatu denon artean.

Gramatika eta diskurtsoa: negarraren gaineko lexikoa (10')

- Bana itzazu transkripzioak ikasleen artean, beraiek gainetik irakurri, eta negarraren inguruko lexia erabilgarria azpimarratu eta jaso dezaten lehendik duten zerrendan.

Atazaostea: negarra dela eta, nork bere ohituren berri eman (10')

- Ikasleak, hirunaka jarrita, negarra dela eta, nork bere ohituren berri ematen jardungo dira. Horretarako, liburuko galdetegia baliatuko dute.

1. Negar errazekoa al zara ala kosta egiten zaizu negar egitea?
2. Ateratzen zaizunean, eutsi egiten al diozu negarrari?
3. Gizonezkoa bazina, negargura ezkututzen ahaleginduko al zinateke?
4. Inguruak hala eskatuta, negar egitea gaizki ikusita baldin badago, ba al dakizu eusten?
5. Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz? Zergatik?
6. Nolako negarra duzu? Isila, intzirikakoa? Negar lodikoa al zara?
7. Begiak hazi eta gorritu egiten al zaizkizu?
8. Pelikulekin, musikarekin eta horrelakoekin ere negar egiten al duzu?

Atazaostea: negarra dela eta, nork bere seme-alaben berri ematea (20')

- Ikasleek negarra dela eta neska-mutiko batzuei irratian egindako inkesta moduko bat entzungo dute (7. bideo-pasarte / VIII. eranskina). Har ditzatela oharrak, euren liburuko taula baliatuz. (5')

Negar egiteko arrazoiak	
“Mutilek ez dute negar egiten” Zein da gaurko neska-mutikoen ustea?	

- Hartutako oharrak alderatu denon artean. (5')
- Hirunaka jarrita, negarra dela eta, beren seme-alaben ohiturei buruz jardungo dute. Horretarako, euren liburuko galderak baliatuko dituzte. (10')
 - Noiz egin zuten negar azkeneko aldiz zuen seme-alabek?
 - Zein izaten dira negar egiteko arrazoiak?
 - Neskatoek mutikoek baino errazago egiten al dute negar?

Gramatika eta diskurtsoa: negarraren inguruko lexikoa (15')

- Ikasleek, hirunaka bilduta, euren liburuko atsotitzei begiratu bat eman eta atsotitzak aztertu ondoren, hainbat aukeratuko dituzte: batetik, kutsu zaharkitukoak eta, bestetik, gustukoak dituztenak. Zuk ere erne ibili beharko duzu, ikasleei ulertzen ez dituztenen esanahia azaltzeko. (10')

1. Begiak parrez-parrez, bihotza negarrez.	12. Denak negarrez jaio, barrez inor ez.
2. Negar da barre, txiki burduntzi, kamara (gela) zarrien danak iruntzi. (umeak luzaro eta ia gogorik gabe ari denean esaten da.)	13. Negarrez mundura sortu, hilobira negarrez sartu.
3. Negar da barre, kaka berde.	14. Negarrari ez fida, tipulak ere ekartzen du.
4. Negar eginda, emakumeak deabrua engainatu.	15. Batean negarra, bestean barre; orain bakean, gero haserre.
5. Negar egitea libre da.	16. Negarrak itotzen ditu bihotzeko arrak.
6. Negar egin barik ez dago bizitzerik..	17. Negarrez jaio, negarrez hil.
7. Negar faltsoz, gora igotzen asko.	18. Negarrez minak arindu.
8. Negar eta barre, aza eta porru.	19. Gero negar egitea alferrik izango da.
9. Aldian behingo negarra, ogia bezain beharra.	20. Negarrez, umea bizi beharrez, zaharra hil beharrez.
10. Negarra eta barrea senideak ei dira.	21. Jendea bada negarrez ez hasi barrez.
11. Negar arina, emaztea bada hila.	

- Denon artean hitz egin egindako aukerez. (5')

3

Diktoglosia

Atazatxo honetan, *diktoglosia* izeneko teknika erabiliz, kontzientzia gramatikala pizteko oso aproposa izan litekeen berreraikitze-jarduera bat proposatu nahi dizugu. Hemen daukazu ariketa eskaini nahi dizugun strategiaren adibidetzat hartu beharko zenuke, garrantzitsuena prozedura horren onuragarritasun didaktikoaz jabetzea baita, gero, egoki iruditzen zaizunean, horrelakoak programatzera anima zaitez.

Atazaurrea: testua aukeratu

- Ariketa honetarako abiapuntu modura, ikasleek ikusiko duten Desmond Morrisen bideo-pasarteko testuaren honako moldaketa hau proposatu nahi dizugu; izan ere, jatorrizko bertsioa zailegia gerta dakieke ikasleei:

Jolastokietako istiluen erdian ordena jartzeko, helduok arauak ezartzen ditugu joko organizaturako, ekipo aukeratzea, adibidez. Ekipo bateko kideztat aukeratua izateak taldean onartua dela adierazten du. Haur-kopurua bakoitia bada, norbaitek kanpoan geratu beharra dauka, eta hau garrantzirik gabeko huskeria dela iruditzen bazaigu ere, kanpoan geratu den ume horrentzat ez da horrela. Une horretan erabat baztertuta sentitzen da eta zaila gertatzen zaio hori jasatea. Gizakiok animali sozialak gara; horregatik, baztertuak izatea zigorrik txarrenetakoa da. Lezio gogor hau ere haurtzaroan ikasten dugu.

Atazaurrea: ariketaren nondik norakoak azaldu (5')

- Ariketari heldu aurretik, komenigarria da oso ikasleek argi izatea zer egin behar duten, zein diren une nagusiak eta zertarako den ariketa. Gauzak horrela, ezinbestekoa da irakasleak ariketa osoa ondo hausnartuta izatea, eskolara eraman aurretik.

Atazaurrea: bideo-pasartea ikusi eta izenburua jarri (20')

- Ikasleek 8. bideo-pasartea ikusi (IX. eranskina: "Giza aberea-gene hilezkorrak"), eta izenburu egoki bat pentsatu beharko dute. Bideoa jarri eta utziezu denbora izenburua pentsatu eta beren liburuan idatz dezaten. Ariketa hau egiteko Desmond Morris-en jatorrizko testua baliatuko dugu.(5')
- Hirunaka bilduta, ikasleek aukeratu dituzten izenburuak alderatuko dituzte.(10')
- Denon artean ikusi nolako izenburuak proposatu diren. Bide batez, hizpidea jarri galdetuz ea horrelakorik inoiz gertatu zaien, nola sentitu diren, zer iruditzen zaien mutikoen jokabidea...(5')

Ataza: diktaketa eta testuaren berreraiketa (30')

- Moldatutako testua duen grabaketa jarri (9. bideo-pasarteko lehena / X. eranskina: "Giza aberea biziraupenetik aurrera -II-"), ikasleek testua entzun dezaten. Lehenengo entzunaldi honetan, ikasleek ezingo dute ezer idatzi; testuaren mamia ahalik eta ondoen ulertzen saiatu beharko dute, besterik gabe.(2')
- Hurrengo grabaketako jarduna motelxeagoa da (9. bideo-pasarteko bigarrena). Saia daitezela ikasleak orduan oharrak jasotzen. Edozein modutara ere, ikasleei ezinezkoa gertatuko zaie entzun ahalean testua hitzez hitz jasotzea. Horregatik, saia daitezela berreraiketarako giltzarri jotzen dituzten hitz, esapide edo dena delakoa jasotzen (3')
- Hartutako oharrak lagun, ikasle bakoitzak testua berridazten edo berreraikitzen saiatu beharko du, jatorrizko testuaren esanahitik ahalik eta gutxien aldentuz. Testuaren berreraiketa bakarka, binaka edo hirunaka ere egin liteke. (25')

Feedbacka (15')

- Ariketaren zuzenketa hainbat modutan egin daiteke. Irakasleak, edo ikasleek, erabaki beharko dute zein den modurik eraginkorrena. Guk, hemen, zuzenketa bideratzeko hainbat aldaera proposatuko ditugu: (15')
1. Irakasleak testu guztiak bildu eta berak zuzendu.
 2. Ikasleek, binaka bilduta, euren artean zuzendu.
 3. Ikasle baten testua denon artean zuzendu, irakaslearen gidaritzapean.
 4. Berreraiketa hirunaka-edo egin badute, gardenkian proiektatu eta denon artean zuzendu, irakaslearen gidaritzapean.

4

Atazaurrea: testua ginetik irakurri, eta arrazoiak antzeman (15')

- Ikasleek euren liburuko literatura-pasarteak ginetik irakurriko dute ("Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?" Andu Lertxundi, Elkarlanean). Bertan erremerre hitz egin eta dezente sufritzen duen mutiko baten berri ematen da. Ikasleek, beraz, arrazoi hori antzeman beharko dute. (3')

Ba, ez, jende guztiak ez du hala hitz egiten. Baina garai hartan niri baietz iruditzen zitzaidan. Harik eta eskolan hasi nintzen arte.

Lehendabiziko eguna oso gogorra izan zen niretzat, lagunak burlaka hasi baitzitzaizkidan:

- Ume hau erremerrea da.
- Mutil hau kirrimarroa da.
- Hi, erremerre, esak "akerrak adarrak okerrak ditu".
- Ni ez nauk eggemeggea. Ni ez nauk kiggimaggoa. Eta nik bazakiat akeggak adaggak okeggak ditu esaten –haserretu nintzen.

- Baina, Beto, zer gertatu zaizu? –esan zidan amak etxera sartu nintzenean.
- Ezeggez! Eskolan lagunak buggla egin didate eta mutuggekoak ematen ibili naiz.
- Muturrekoak ematen, eta... muturrekoak hartzen ere bai, ezta? Galdetu zidan amak, eta sudurretatik jario neukan odola lehortzen hasi zitzaidan.
- Mutuggekoak ere haggtu ditut, bai, baina ez dut negaggik egin!

- Jarraian, hirunaka bilduta, txikitan diferente egiten eta sufriarazten dizkiguten arrazoiak zein izaten diren pentsatu beharko dute. Esaiezu zerrenda luzea egiteko, gutxienez hamar arrazoi bilduko dituenak. (7')
- Denon artean zerrendak alderatu eta osatu. (5')

Ataza: nork bere bizipenaren berri eman (30')

- Horrelako bizipenik izan ote duten ekarri beharko dute gogora ikasleek. Euren, ikaskide edo lagun baten edota seme-alabaren batena. Gero taldearen aurrean horren berri emango dute banan-banan. Bitartean gainontzeko ikasleek lehenik zerrendatuta dituzten arrazoi ondoan horrexegatik sufritu zuenaren izena jarriko dute.
 - **Prestaketa:** aurkezpena prestatzen laguntzeko, ikasleek euren liburuko galderei erantzuniko diete. (8')
- a) Zer zen desberdin egiten zuena?
 - b) Lagunek nola hartzen zuten?

- c) Aurre egiten al zion arazoari? Nola?
- d) Ahaztuko ez zuen egun, gertaera edo pasadizorik, bai?
- e) Gaingitu al zuen? Nola?
- f) Zer egin daiteke horrelakoen aurrean? Gurasoek? Hezitzaileek?

- **Azalpena:** banan-banan ikasleek nork bere bizipenaren berri emango dute taldearen aurrean. (20')

Feedbacka (5')

- Arestian zerrendatutako arrazoietatik zein aipatu den eta zein ez alderatu denon artean.

Atazaostea: Irratiko elkarrizketa entzun eta oharrak hartu (25')

- Azaldu ikasleei nolako elkarrizketa entzungo duten (Eta zer? Literatur sail berria dela eta, liburu bana idatzi duten A. Lertxundi, S. Calleja eta A. Egaña idazleei egindako elkarrizketa). Galdetu ea ezagutzen dituzten idazle horiek, eta zer dakiten horiei buruz. (5')
- Irratia entzun bitartean (10. bideo-pasarte / XI. eranskina: "Eta zer?") oharrak hartuko dituzte ikasleek. Horretarako, liburuko laukia baliatuko dute. (10')
- Hartutako oharrak alderatu denon artean. Une egokia da ikasleen arreta idazleen esanetara bideratu eta hizpidea jartzeko. Akula itzazu pixka batean, sail berri honen asmoez hitz egin dezaten. (10')

	Arrazoiak	Idazleen bizipenak	Idazleen asmoa
Lertxundi	Protagonistak erremerre hitz egiten du, eta eskolan burla egiten diote. Baina badaki bere buruari buelta ematen.	Arazo berbera izan zuen txikitan. Baina, ez zuen trauma handiegirik izan.	Nahi luke irakurleek irakurketa umoretsua egitea, dituzten desberdintasunak erlatibizatzea.
Calleja	Protagonista lodia da, eskolan burla egiten diote. Baina era berean indartsua da, eta badaki hori baliatzen garaile ateratzeko.	Bera argala da. Baina, badaki zer den hori. Eredu batzuk betetzen ez badituzu, kanpoan gelditzen zara.	Nahi luke irakurleak esatea: "Ni potoloa, mehea, betaurekoduna naiz eta zer? Badut beste gaitasun bat."
Egaña	Protagonistari ez zaio futbola gustatzen, zomorroak eta horrelakoak biltzen ditu. Hori dela eta, baztertu egiten dute eskolako lagunek.	Berak futbola gustuko zuen, beraz ez zuen sufritu, baina badaki horrelakoak gertatzen direla.	Oso gauza normala dela futbola ez gustatzea, gustatzea den bezalaxe. Nahi luke beste gauzekin ere disfrutatzen dela konturatzea.

Helburu nagusia:

- Heziketa eta kirola direla eta, neurrigabeko lehiak eta seme-alabei ematen dizkiegun baloreez eztabaidatzea.

Helburuak:

- Irratian entzundako literatur pasarte bateko giroa deskribatzea.
- Liburu bereko beste literatur pasarte bat irakurri, eta hainbat gurasoren jokabidea baloratzea.
- Aingeru Epaltza idazleari egindako elkarrizketa entzun, eta informazio nagusia jasotzea.
- Neurrigabeko lehia dela eta, nork bere bizipenen berri elkarri ematea.
- Hitzek lekuzteari erreparatuta, hainbat hitz lotzea.
- Artikulu luze bat irakurri, eta ideia nagusiak antzeman eta jasotzea.
- Euskarri idatziez baliatuta, irakurritako artikuluen berri elkarri ematea.
- Irratiko elkarrizketa entzun, eta lehendik jasotako oharra alderatu eta osatzea.
- Testu-antolatzaileak aztertzea.
- Kirola eta heziketa direla eta, neurrigabeko lehiak iritzia ematea.
- Ikasleek testu-antolatzaileak nola erabili dituzten aztertu eta baloratzea.

Zertan den:

Ataza honek hiru azpiataza biltzen ditu bere baitan:

Lehenengo azpiatazan, seme-alabak kirolean ari direnean aztoratzen diren gurasoen jokabidea izango dugu hizpide. Entzundako literatur pasarteko giroa deskribatu, eta bertako gurasoen jokabidea baloratuko dute ikasleek. Ondoren, A. Epaltzari irratian egindako elkarrizketa entzun, eta informazio nagusia jasoko dute. Azkenik, seme-alabak kirolean aritzean eta beraiek ikusle izatean, beren bizipenak adieraziko dituzte.

Bigarren azpiatazan, kirola eta lehia direla eta, aditu batzuei egindako elkarrizketak irakurri eta entzun, eta informazio nagusia jasoko dute. Hasteko, A eta B ikasleek, nork bere artikulua irakurri, eta ideia nagusiak antzeman eta jaso ondoren, elkarri emango diote irakurritakoaren berri. Azkenik, irratian kirol hezitzaile batzuei egindako elkarrizketa entzun, eta lehendik jasotako informazioa alderatu eta osatuko dute.

Hirugarren azpiatazan, ikasleak neurrigabeko lehiak eta heziketaz eztabaidan arituko dira. Eginkizun hau da ataza honetako mugari nagusia. Hasteko, iritzia ematerakoan erabili ohi diren testu-antolatzaileak aztertuko dituzte. Ondoren, hainbat baieztapenen inguruan iritzia eman, eta argudioak prestatuko dituzte banan-banan. Azkenik, eztabaidari helduko diote. Nork bere iritzia azaldu eta defendatu beharko ditu. Ikasleen jarduna grabatzeko gonbitea egin nahi dizugu. Feedbackaren etapan, grabatutakoa baliatuta, ikasleek testu-antolatzaileak nola erabili dituzten aztertu eta baloratuko dute.

Prozedura:**1****Atazaurrea: literatur pasartea entzun eta bertako giroa deskribatu (20')**

- Jarri ikasleei grabaketa (11. bideo-pasartea / XII. eranskina). Bertan, A. Epaltzaren "Baloika" liburuko pasarte bat ozen irakurtzen dute. Giroa bero samarra da: gurasoak aztoratu antzean dabilta, beren seme-alabei eupaka eta beste taldekoei oihuka eta txistuka. Ikasleek pasartea entzun eta hitz pare batez deskribatu beharko dute giroa. Nork bere liburuan idatziko ditu. Ondoren, adieraz ditzatela taldearen aurrean. (10')
- Ikasleen liburuan datorren Aingeru Epaltzaren liburu bereko pasartea irakur dezatela (XIII. eranskina), eta balora dezatela bertan ageri diren aita-amen jokabidea. (10')

Ataza: irratiko elkarrizketa entzun eta informazioa jaso (15')

- Orain, A. Epaltzari egindako elkarrizketa entzungo dute ikasleek (12. bideo-pasarte / XIV. eranskina). Elkarrizketa horretako hainbat punturen gaineko informazioa jaso beharko dute. Horretarako, elkarrizketa entzun baino lehen, euren liburuko taulari begiratu bat eman diezaiotela. Entzun, eta oharrak jaso ditzatela taulan. (10')
- Hartutako oharrak denon artean alderatu eta osatu. (5')

Zer gertatzen da liburuan (futbolean)?	<ul style="list-style-type: none"> ○ Areta futbol/futbito-talde baten gorabeherak ○ Protagonista defentsa da, golak sartu nahiko lituzke, baina atzean geratu behar izaten du.
Gaia	<ul style="list-style-type: none"> ○ Lehia ○ Urduritasuna ○ Guraso aztoratuak
Idazlearen esperientzia	<ul style="list-style-type: none"> ○ Futbola ez zaio gehiegi gustatzen ○ Atentzioa eman izan diote beti gurasoen erreakzio barregarriek.
Zergatik gertatzen dira gurasoen erreakzio barregarri horiek?	<ul style="list-style-type: none"> ○ Irabazten ez dutelako. ○ Seme-alabak bankilloan gelditzen direlako. ○ Ez dakit zein zelairatu dutelako.
Zergatik jarri ditu liburuko areto-futboleko taldean neska-mutikoak elkarrekin talde berean?	<ul style="list-style-type: none"> ○ Giroa oso matxista izaten delako. ○ Semearen taldean neska bat ibiltzen zelako. ○ Funtzio hezitzailea.

Atazaostea: nor bere bizipenen berri eman (20')

- Hirunaka jarrita, ikasleek euren bizipenak kontatuko dizkiote elkarri. Lagungarri gisara, erabil ditzatela ikaslearen liburuko galderak. (10')

GALDERAK:

- Eta zuek bizi al izan duzue inoiz horrelako edo antzeko gertaerarik?
 - Zein izan zen arrazoia?
 - Zer gertatu zen?
 - Zein izaten da seme-alaben erreakzioa horrelakoetan?
- Anima ezazu ikasleren bat edo beste bere bizipenen berri taldearen aurrean ematera. Horretarako, taldetxotan ari diren bitartean, batetik bestera ibili, eta ikusi zeinena izan daitekeen interesgarria. (10')

2

Atazaurrea: lexikoa —bi zutabeetako hitzak lotu— (5')

- Azaldu ikasleei zer egin behar duten, eta banatu bitan taldea: A ikasleak eta B ikasleak. Ikaskideen erdiek artikulua bat irakurri eta bertako informazioa atera beharko dute; beste erdiek gauza bera egin behar dute bigarren artikulua batekin.
- Aurretik, ordea, begiratu bat eman behar diote artikuluko hiztegiari Binaka jarrita (A ikaslea eta B ikaslea), ikasleek bi zutabeetako hitzak lotu egin beharko dituzte. Horrek aukera emango die euskaraz hainbat hitz non lekutzen diren ikusteko. (5')

ERANTZUNA:

A	B
— Konortea galdu	— Eliteko kirola eta heziketa-kirola bereizi
— Txorkatila bihurritu	— Haurraren osotasunezko garapena lortu
— Elkar ezin eraman	— Ikaslearen autoestimua hobetu
— Jokatzeko aukera izan	— Motrizitate-gaitasun ezberdinak landu
— Atzera egin	— Kirol desberdinak praktikatu
— Galtzen jakin	— Haurrak bere burua kirolera zaletu
— Giro sanoan hezi	— Gizarteak rol desberdinak ezarri
— Saskiaren eustaga jo	— Gurasoek beren espektaktibak proiektatu

Ataza: artikulua irakurri eta elkarri kontatu (35')

- Ikasleek artikulua irakurri, eta elkarri kontatuko dizkiote.
- **Prestaketa:** nor bere artikulua irakurri (XV. eranskina), eta informazio nagusia aterako du. Horretarako, beren liburuak taula baliatuko dute. (20')

Neska-mutikoak	
Gurasoak	
Entrenatzaileak	
Lehia eta kirola	

- Ikastaldea bitan banatuta (A ikasleak batetik eta B ikasleak bestetik), hartutako informazioa alderatu eta osatuko dute. (5')
- **Azalpena:** binaka jarrita (A ikaslea eta B ikaslea), irakurritako artikuluen informazio nagusiaren berri emango diote elkarri. (10')

Atazaostea: irratiko elkarrizketa entzun eta lehendik jasotako informazioa alderatu eta osatu (20')

- Ikasleek soinketa-irakasle biri irratian egindako elkarrizketa entzungo dute (bi irakasle hauek ere gai bera dute hizpide). Elkarrizketa adi entzun (13. bideo-pasartea / XVI. eranskina), eta lehendik duten taula berean jasoko dute informazio berria, aurrekoa osatuz. (15')
- Denon artean alderatu jasotako informazioa. (5')

3

Atazaurrea: testu-antolatzaileei erreparatu (20')

- Ikasleek liburuan dituzten testu-antolatzaileak aztertu, eta zein funtzio duten erabakiko dute. Horretarako, aurkezten zaizkien testu-antolatzaileak eskaintzen zaizkien lau funtzioekin lotu behar dituzte. (10')

FUNTZIOAK:

- Argudioak edo arrazoiak ordenatu
- Adibideak eman
- Esandakoa beste modu batera adierazi
- Zerbait erantsi edo arrazoiak gehitu

<p><i>Adibidez</i> <i>Esate baterako, esaterako</i> <i>Adibide bat jarriko dizut</i> <i>Esango dizut zer gertatzen den</i> ...</p>	<p><i>Esan nahi dudana da...</i> <i>Esplikatuko dizut...</i> <i>Hau da...</i> <i>Honekin zera esan nahi dut...</i> <i>Hobeto / bestela esanda...</i> <i>Alegia</i> ...</p>
<p><i>Lehenengo / lehendabizi</i> <i>Bigarren</i> <i>Zenbakiak: bat, bi, hiru...</i> <i>Batetik..., bestetik...</i> <i>Alde batetik...</i> <i>Beste aldetik / bestalde...</i> <i>(Eta) azkenik...</i></p>	<p><i>Eta beste gauza bat,...</i> <i>Ahaztu baino lehen...</i> <i>Beste zerbait esan nahi nuke...</i> <i>Eta ez hori bakarrik...</i> <i>Are gehiago...</i> <i>(Eta) gainera</i> <i>Honetaz / horretaz aparte...</i> <i>Baita ere...</i></p>

- Aurreko atazan entzun berri duten elkarrizketaren transkripzioak banatu ikasleen artean. Testu-antolatzaileak azpimarratu eta jaso behar dituzte, binaka jarrita.(10')

Ataza: eztabaida (30')

- Liburuko taula zertarako den azaldu ikasleei. Bertan, hainbat baieztapen datoz. Beraiek ados dauden ala ez markatu beharko dute gurutze batez, eta ondoan beren iritzia aldezteko argudioren bat edo beste ere idatzi. Ikasleek gogoeta banaka egitea proposatzen dizugu. (3')
- Prestaketa:** Ikasleek liburuko taula bete dezatela. (12')

	Ados nago / ez nago ados	Arrazoiak
<ol style="list-style-type: none"> Lehia beharrezkoa da, baina ez da helburua, bidea baizik. Neska-mutikoen arteko lehia baztertu egin beharko litzateke erabat kirolean. Gurasoek beren espektatibak proiektatu eta gehiegizko presioa eragiten diete seme-alabei. Ingelesa, interneta, judoa... hamaika ikastarotan apuntatzen ditugu seme- 		

<p>alabak, eta ez diegu bizitzen irakasten.</p> <p>5. Erantzukizuna ez da gurasoena, baizik eta irakasleena, entrenatzaileena, eta, azken batean, hezitzaileena.</p> <p>6. Gurasoak ez gaude prestatuta kirolean eta horrelakoetan geure seme-alabak behar bezala hezteko.</p> <p>7. Seme-alabak txiki-txikitatik kirolen batean jo eta ke hastea da onena, goi-mailako kirolariak aterako badira.</p> <p>8. Heziketa fisikoa eta psikologikoa, biak uztartu behar dira.</p> <p>9. Neska-mutikoen entrenatzaileek soinketa-ikasketak egindakoak izan beharko lukete.</p>		
--	--	--

- **Azalpena:** Galdetegiaren erantzunak eta argudioak gogoan, eztabaidari helduko diote ikasleek, hiruak jarrita. (15')
- Talderen baten edo besteren jarduna grabatzea proposatu nahi dizugu (bideoan bada, kalterik ez). Beraz, prest eduki behar duzun tresneria.

Feedbacka (formari begirakoa) (10')

- Ondoren, grabaketa jarri, eta ikasleek testu-antolatzaileak nola erabili dituzten aztertuko dute.

3. MATERIAL OSAGARRIA

A. GURASOEN ZALETASUNAK NOLAKO, SEME-ALABENAK HALAKO (135')

Helburu nagusia:

- Familian kirola egiteak eta zaletasunak transmititzeak dakartzan onurez hausnartu eta hitz egitea.

Helburuak:

- Bideo-erreportaia bat ikusi, eta informazio xehea jasotzea.
- Seme-alabei transmitzen saiatu diren zaletasunez hitz egitea.
- Artikulu baten aurreikuspena egitea. Familian kirola egiteak dakartzan onurak zein diren aurreikustea.
- Familian kirola egiteak dakartzan onurez hausnartu eta hitz egitea.

Zertan den:

- Lehendabizi, seme-alabei zaletasunak transmititu dizkieten pertsona ezagun edo famatuen izenak biltzeko eskatuko diegu. Ondoren, beraien esperientziara hurbiltzeko akuilu gisara, "Mendiriz mendi" elkarte hernaniarrak egindako irteera baten erreportaia jasotzen duen bideoa ikusi, eta hainbat datu jaso beharko dituzte. Jarraian, nor bere eta seme-alaben zaletasunez eta zaletasunak transmititzen egindako ahaleginaz hitz egingo du. Ondoren, artikulu bat irakurriko dute, eta bertan ematen diren hainbat gomendioetatik eurentzat garrantzitsuenak aukeratuko dituzte. Hauxe izango da aitzakia, ikasleek onura horiez gogoeta egin eta hitz egin dezaten.

Prozedura:

1

Atazaurrea: pertsona ezagunak zaletasunak transmititzen (10')

- Ikasleek euren liburuko taula baliatuz, euren seme-alabei beraien zaletasunak transmititu dizkieten pertsonen zerrenda egin behar dute (ezagun/ospetsuak edota ingurukoak izan litezke). (5')
- Hirunaka jarrita, osa dezatela zerrenda eta hitz egin dezatela horri buruz. (5')

Atazaurrea: bideoa ikusi eta informazio xehea jaso (10')

- Azaldu ikasleei nolako bideoa ikusiko duten eta zer informazio jaso behar duten.
- Bideoa ikusi (14. bideo-pasartea), eta hainbat ohar hartuko dituzte ikasleek. Horretarako, euren liburuko taula baliatuko dute. (5')

Zer diote neska-mutikoek?	
Zer diote gurasoek?	
Zer daramate bizkar-zorroan?	
Zer esaten diete seme-alabei ea zenbat falta den galdezka hasten direnean?	
Zer adinetakoak izaten dira honelako irteeretara joaten diren neska-mutikoak?	

- Hartutako oharrak alderatu. (5')

Ataza: nor bere esperientziaren berri eman (25')

- Ikasleek euren liburuko taula beteko dute. Bertan ikasleek beren zaletasunak eta beren seme-alabenak idatziko dituzte. (10')

Gurasoen zaletasunak		Seme-alabenak		
amarenak	aitarenak			

- Hirunaka jarrita, esperientziak trukatu dituzte. Horretarako, liburuan dituzten galderak baliatzea proposa diezaikezu. (15')
 - Saiatu al zarete zeuen seme-alabei zuen zaletasunak transmititzen?
 - Zein? Nola?
 - Arrakastarik izan al duzue?
 - Zer egin duzue horretarako?
 - Nola hartu izan dute zuen seme-alabek ahalegin hori?

Feedbacka (15')

- Denon artean hitz egin talde txikietan esandakoaren gainean.

2

Atazaurrea: aurreikuspena egin (15')

- Ikasleek laster "Seme-alabekin kirola egiteak familia barneko harremana laguntzen hobetzen du" izeneko artikulua irakurriko dute. Hirunaka jarrita, zerrendan jaso dezatela familian kirola egiteak zer onura ekar ditzakeen. (10')
- Denon artean, arbelean idatzi taldeetan zerrendatutakoak. (5')
 - Familia barneko harremana hobetzen lagundu
 - ...
 - ...
 - ...

Ataza: artikulua irakurri eta aurreikuspena alderatu (20')

- Ikasleek artikulua irakurri (XVII. eranskina) eta liburuan jaso beharko dituzte artikuluan azaldu eta lehendik zerrendatu ez dituzten onurak.

Feedbacka (5')

- Denon artean alderatu zerrendatu dituztenak.

Atazaostea: familian kirola egiteak dakartzan onurez hitz egin (20')

- Liburuan jasota dituzte artikuluan agertzen diren hamar gomendio. Hamar horietatik lau aukeratu behar ditu ikasle bakoitzak, beretzat garrantzitsuenak direnak. (5')
1. kirola familian egiteko ohitura sortzea
 2. zaletasunak elkarbanatzea
 3. kirola komunikazioa sendotzeko erabiltzea
 4. seme-alabei protagonismoa ematea
 5. beren burua zein besteak errespetatzen erakustea
 6. aisiari eta ahaleginari irabazteari baino garrantzi gehiago ematea
 7. jokoan sormena eta elkarlana sustatzea
 8. denbora librea baliatzea
 9. familia-bizitzaren kalitatea
 10. osasuna bultzatzea
- Hirunaka jarrita, egindako aukerak alderatu eta gaiaz hitz egin dezatela. (15')

Feedbacka (15')

- Ikasleek jakin-mina izango dute beste taldetan hitz egindakoaren berri jakiteko. Bidera itzazu, beraz, alderatze lan hau eta ondorengo iritzi-emateak.

4. ERANSKINAK

I. ERANSKINA

(1. bideo-pasartea. ETB: 02.52.29)

Giza aberea biziraupenetik aurrera

Txikitan asko jolastutako gizakiek, hobeto irauten dute bizitzan. Aipatzekoa da haurtzaroko jolas askotan nola isladatzen diren ehiztari eta ehizaren arteko harremanak, aintzinako iragana antzestu beharko bagenu bezala.

Haurtzaroko jolasari esker entrenamendu berezia jasotzen ez badute ere, haurrek hobeto ulertzen dute zer nolako gaitasuna duten gauzak egiteko eta zein girotan bizi diren.

Bizimodu mugatua eta geldoa ezin okerragoa izan daiteke haurrentzat. Heltzaroan ondo ibiliko bada, haurrak ezin biziago ibili behar du haurtzaroan.

Horretarako, haurrak berak jolas guraren laguntza izango du; izan ere, dena ohi bezala gertatzen bada, jolasteko gogoak haurra jolastera bultzatuko du.

Harrigarria bada ere, jolasteko gogoia amaren sabelean hasten da. Giza enbrioia eskaner honetan argi somatzen da, zer gogoia daukan jolasteko adin horretan bertan. Umea ostikoka ari da, hori egiteko inolako arrazoi fisiologikorik ez badu ere. Erritmoarekin eta gorputzarekin jolasteagatik dabil horrela.

II. ERANSKINA

Jolasen zerrenda

Gaitasun espaziala handitzeko

Soka-saltoa: herrialde gehien-gehienetan ibiltzen dira soka-saltoan, erritmoa eta koordinazioa lantzen ditu, eta oso ariketa fisiko ona da.

Itsumandoka: inork ez daki non duen jatorria, baina jakina da XVII. mendean asko ibiltzen zirela. Konfiantza, zentzumenak eta gaitasun espaziala lantzen ditu.

Pilota: mayarrak eta aztecarrak izan ziren lehenak pilotan ibiltzen. Jolas hau eguzkiaren zeharkaldiaren ikur da. Latexezko baloi bat jaurtitzen da belaunez, eskuez...

Hobeto sozializatzeko (harremanetan hasteko)

Etxetxoak, medikuak... : dramatizazio-jokoak dira hauek, helduen bizimodua antzezten dutenak.

Panpinak: Golem-en mitoarekin du zerikusia. Lokatzezko irudia, gizakiaren ikur dena, giza gaitasunak hartzen dituena. "Iruditxoarekin heldua balitz bezala jolasean, haurra aita edo ama izateko prestatzen da", dio Jose Maria Batllori pedagogoak.

Gezur txikiak: adituen esanetan, jolas honek gurasoen eta seme-alaben arteko eta anai-arreben arteko gatazkak (haserreak) arintzeko balio du. Konplizitate-giroa sortu, eta familia-harreman onak bultzatzen ditu.

Elkartasuna hobetzeko

Kartak: XVI. mendean sortu ziren Europan. Talde-joko guztiek bezalaxe, giza harremanetan lagundu eta beste parte-hartzaileekin bat egiten irakasten dute. Koordinazioa areagotzen dute. Bestalde, garaipena zoriaren araberakoa izaten denez, galtzen ikasteko onak dira.

Monopoly-a: 1934ko ekonomia-beheraldi handiaren ondoren sortua. Mahai-joko honek, hainbat eta hainbat lagun dirua zela eta beldurak aidean zebiltzanean, familiak elkarrekin denbora dezente eman eta elkartzeko balio izan zuen.

Bideo-jokoak: 1972an lehen bideo-jokoa agertu zenez geroztik, asko dira makina hauek salatu dituztenak. Hala ere, egun zenbait psikologok diotenez, ez dira kaltegarriak izaten. Aitzitik, begiaren, eskuaren eta berehalako memoriaren arteko koordinazioa garatzen dute.

Arintasuna hobetzeko

Txingoa: oinaz egur puska bat edo harri bat arrastaka eraman behar da pintaturiko azalera batean zehar. Antzinako Grezian du jatorria. Motrizitatea eta kontzentrazioa garatzen ditu.

Kometa: XII. mendean aipatu zuen tramankulu hau Marco Polok, Txinara egindako bidaian aurkitu ondoren. Psikomotrizitatea bultzatzen du; izan ere, hegarazteko gorputzeko atalak mugitu behar baitira.

Txorromorroa: pedagogoen ustez, jolas xume honek mugimendu zehatzak landu eta gorputz eskema hobetzen du. Beraz, koordinazio-arazoak dituztenentzat egokia da.

Kontzentrazioa handitzeko

Partxisa: jatorri indiarra du, eta tableroan ageri den gurutzea Indian hausnartzeko erabiltzen direnen antzekoa da. Bizitzako borrokarekin du zerikusia. Zoria eta estrategia dira elementu nagusiak.

Xakea: V. mendean zegoeneko ezaguna zen Indian, handik Persiara eraman zuten, bertatik arabiarrek ekarri zuten mendebaldera. Kontzentrazioa, oroimena eta gaitasun espaziala lantzen ditu.

Antzarraren jokoa: jatorri greziarrekoa, lehia, zoria eta estrategia lantzen dira. Partxiseko gurutzearen ordez espirala ageri da tableroan.

III. ERANSKINA

(3. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 02.55.25)

Haur-jolasak

- Irratia** Umeek jolas non egiten dute?
- Irratia-2** Galdera hori bera egiten du entzuten ari garen abesti honek: non egiten dute jolas umeek?
- Lehena** Askotan esaten baita lehengoan aldean oraingo umeek ez dutela lehen bezala jolas egiten kalean, edozein kaletan.
- Irratia-2** Bai, aukeran telebista gehitxo ikusten ez ote duten, edo...
- Irratia** Eta jolas egiteko jostailuak behar dituztela, lagun artean jolasean aritzen ez ote dakiten, edo... edo.
- Irratia-2** Bai, hori esaten da. Egin dezagun galdera; duda-mudatan egon beharrean, hobeto argitzea, argitu dezagun zalantza.
- Irratia** Laura Santos "ANTXETA" ludotekako hezitzailea, egun on.
- Laura** Egun on.
- Irratia** Ea zuk badakizun galdera honi erantzuten: non egiten du jolas gaur umeak?
- Laura** Ba, egia da ohiturak galtzen ari direla. Gaur egun haurrak gero eta gutxiago jolasten dute kalean, eta, bueno, horretarako, guk bideratzen ditugu haurrak kalean jolastera.
- Irratia** Kalean, ezta? Eta kalean ez, ordea, jolastoki jakin batean, beharbada, denak parkera.
- Laura** Gutxiago jolasten dute parkean, gero eta gehiago etxeetan eta sartzen dira.
- Irratia-2** Kale-bizitza ere askoz gutxiago egiten dutela lehengoan aldean.
- Laura** Hori da.
- Irratia-2** Eta jolas egiten dutenetan ere, gehienetan, jostailuekin egiten dutela, ez? Lagunartean jolasten eta ahazten ari zaiola gaurko umeari.
- Laura** Bai, haurrak gero eta indibidualistagoak dira, beraiek bere buruarekin bakarrik jolasten dute eta taldeko jolasa edo deitzen dioguna, ba, galtzen ari da.
- Irratia** Eta jolasik onena horixe da, ezta? Jolaskideak ere berekin behar dituen, eta zuek horixe egiten duzue ludotekan, ezta?
- Laura** Bai, bueno
- Irratia** Jolas egiteko tokia jarria, eta?
- Laura** Eta jolastu, guk jolasa erlazionatzeko tresna bat dela diogu, jolasaren bidez haurrak ikasi egiten du, ikertzen duen material guztiarekin ikerlanean ari da.
- Irratia-2** Hori zuena bezalako ludoteketan daukazuen helburua, ez?
- Laura** Hori da. Helburu nagusia haurra jolasaren bidez garatzea izango litzateke, heziketa bat ematen da lukoteketan.
- Irratia** Eta, horretarako, zer egiten diezue jolas berriak eta jokoak zuek erakutsi, legeak nola diren eta hori guztia, ala zer?
- Laura** Hori da, jostailuetaz aparte, badaukagu jolaserako-edo orduak eta hor jolas berriak erakusten ditugu, jolas kooperatiboak.

- Irratia** Eta zein jolas da, horrela di-da batean azaldu eta denak prest egoten direnak, jolaskide izateko?
- Laura** Mota askotako jolasak egiten ditugu: kalera atera eta puzgarriak zapaltzea, patinekin jolastea, kaleko jostailuk edo.
- Irratia-2** Eta euskal haur-jolasak ere seguru aski erakutsiko dizkiezue, horretan tradizio aberats samarra badaukagu Euskal Herrian.
- Laura** Batez ere, orain erakusten ari garenak edo izango litzateke soka-saltoan eta ibiltzeko jolasak; normalean, goman eta ibiltzen dira eta erdaraz egiten dute; orduan, beno, ba, saiatzen gara abesti horiek-eta euskaraz ikastea.
- Irratia-2** Badirela abesti asko eta ugari.
- Laura** Badira hor zinta pare bat edo orain atera dituztenak, ba, bertan euskal jolasak edo, ba, biltzen dituztenak, eta horiek saiatzen gara abesti horiek eta erakusten.
- Irratia** Zure lana jolas egiten erakustea al da, Laura?
- Laura** Jolas egitea baino heziketa bat ematea da, eta, horretarako, gure tresna jolasa izango litzateke, aisialdian edo denbora librean heziketa ematea.
- Irratia** Ba, Laura Santos, "ANTXETA" ludotekako hezitzailea, horretan utziko zaitugu, ba, eta disfruta dezazuela denok ere jokoaz eta jolasaz.
- Laura** Benga, ba! Eskerrik asko.

IV. ERANSKINA

(4. bideo-pasartea. ETB: 02.59.25)

Maribel Aizarna

- Andoni Ia, ia hau ezaguna duzuen?
Julia Saltoka, saltoka, saltoka
Maribel Benga, Julia, sartu!
Jose M. Benga, Julia, sartu!
Denak Aiiiiiii!
- Andoni Julia ez, Julia, beharbada, ez duzue ezagutzen, baina bere ama bai, ezta? Beno, lehengoan, lehiaketan galdetu nuen nik nork aurkezten du Euskal Telebistan lehenengo katean Gaur Egun arratsaldekoa, ordu bat eta erditakoa? Eta uste dut Oriotik Maribel batek ez zuela jakin erantzuten. Ba, bai, bera Maribel Aizarna zenuten, alaba Juliarekin soka-saltuan ibili dena, soka eragiten Joxe Mari Gabiria, eta horixe jakin nahi zuten, txikitari Maribelek Aizarnan, alegia, bere abizena eta bere jaioterria den leku horretan zertan jolasten ote zuen, eta jolasak politik, zoragarriak.
- Maribel Begira, erdaraz gauza handirik ez genuen jakingo, baina jolas askoren kantua erdaraz izaten zen, baina hau euskaraz egingo dizut, "Zubiri zubiri" zuen izena. Orduan, jartzen ginen bi horrela, eta hasten ginen. Julia, Jone egingo duzu? "Zubiri zubiri", benga!
 Zubiri zubiri, nongirik nongi
 Nongo alaba gerade?
 Frantziako errege baten seme-alaba gera gu
 Hurrun hurrena zubi hontatik pasatzen dena
 Hemen gelditu beharko du
 Hemen gelditu beharko duuuuuuuuuuuuu!
 Platanoa ala laranja?
 Aukeratu behar izaten zen
 Platanoa
 Platanoa niri atzera
- Jose M Amaxoren atzera
 Eta laranja aukeratzuz gero, zure atzera.
 Eta, orduan, gero, denak pasa, eta denak alde baten edo besten gelditakoan egiten zen horrelako sokatira moduko bat, tiraka, eta, klaro, zeinen atzean jende gehiago, haiek irabazten zuten, normalean.
- Jose M Horrelako soka dotoreak izaten al zenituzten soka-saltuan ibiltzeko?
Maribel Keba, keba. Askozaz bastoagoak izaten ziren, lodi-lodik, eta harrapatuz gero, gainera, sekulako minak ematen zuenak.
- Jose M. Mutilak eta ibiltzen al ziren honetan?
Maribel Noizbait ibiliko ziren, baina, gehiena, neskak ibiltzen ginen.
Jose M Gure herrian bai, ibiltzen ginen.
Maribel Bai? Probatuko al dugu? Eragin zuk zeuk.
Jose M Neu eragiten.
Maribel Hasi, orain sartuko naiz
Jose M. Ia, e! Bat, bi... Aupa, O!
Maribel Bejondaizula, Jose Mari. Bale, bale, bale. Nekatu naiz.
Maribel Orain erakutsiko dizueten beste jolas honek "Aceitero, Vinagrero" du izena. Jone, Jon Joseba, egingo dugu? Julia prest, e?
 Aceitero Vinagrero zer daukazu kolokuan?

Zorri handi bat lepoan.
Zer da hau?
Kutxiloa.
Esan bazenu karramarro
Ez zenuen hartuko horrenbeste.
Zer da hau?
Karramarroa
Esan bazenu guraizeak
Ez zenuen hartuko horrenbeste.
Zer da hau?
Karramarroa.
Esan bazenu kutxiloa
Ez zenuen hartuko horrenbeste.
Zer da hau?
Karramarroa
Bai! Azkar, azkar ezkutatu; bestela, Juliak harrapatuko zaituzte.

Maribel Orduan, beste ezkutatu, eta Juliak aurkitu egin behar ditu.
Jose M. Hara, zer polita!
Maribel Hau ere gu txikitan egiten genuen jokoa da.
Jose M Julia! Julia! Eta zuek egiten al duzue horrelako jolasik orain?
Julia Bai.
Jose M Ibiltzen zarete? Eta nork erakutsi dizu jolas polita?
Julia Hor.
Jose M Hor, eskolan?

- Benito Ez dakit zenbat urte izango nituen nik: hamar, hamaika, horrelakoren bat. Herriko festetan gauza bitxi bat gertatu zen, inoiz ikusi ez genuen zerbait, eta ekarri zuten hockey patinen gainean, jokatzeko zen hockey partida bat ekarri zuten
- Jose M Oriora?
- Benito Orioko frontoia, frontoia ireki zen, eta gogoratzen dut nola ohola batzuekin inguratu zuten kantxa hura, patinak eta hegalera etortzen zirenean eta haien kontra joateko, eta, han, badakizu, beraien maniobrak egiteko; eta Errealeko ekipo bat zen, eta uste dut bigarrena, bestea Bartzelona zela, ez dut oso ondo... Bartzelona zela, eta partidu harrek ikaragarritzko inpaktua egin zidan eta ikaragarri zaletu ginen asko, ez? Eta gogoratzen dut denboraldi bat izan genuela nolabait hockeyan egin nahi genuena.
- Jose M Eta haien makilak edo stikak edo?
- Benito Bai, baina stik hori, bai, ez genuen behin ere lortu, baina geronk egiten genituen, mendian aurkitutako zuhaitz adar erori batzuk eta horrela bilatzen genituen piska bat antzekoak, eta gero labanaz eta, pixka bat taxutu eta abar. Eta oso politak, ahalik eta politena uzten saiatzen ginen, eta haiekin ibili ginen; gainera, oso grinatsu ibili ginen.
- Benito Ikusten duzu erabiltzen genuen pilota-mota, eta hau da geroxeago, hau pixka bat hasi eta gero, Atano zazpigarrenak egiten zituen pilotak.
- Jose M Beste zarata dauka horrek, e?
- Benito Eta, gero, hau horrelakoekin ere ibili izandu naiz gerora, oso gerora, baina hau pilota hau historikoa da hau. Julian Retegik erabili zuen Galartzari irabazi zion final batean, laurogeita bost edo seian edo.
- Jose M. Marka badauka gainera, e?
- Benito marka, ikusten duzu. Hau ia harrizkoa da.
- Garaitu haretakoa ondo ibiltzen zena, eta hark ere ez zuen asmatu. Galdu egiten diren zerbait dek, ez?
- Aber.
- Epa.
- Benito Hau txoriari eta horrelako mugitzen zenari bota eta katu bati edo; horrelako gauzak egiten genituen. Baita ere erabiltzen genuen asko, noski, ez zirenak hain politak, e? Adar bat horrelako kutxilo bat edo erabiltzen genuen piska bat txukuntzeko gauzak egiteko ahalik eta politenak egiteko, eta abar, ez? Baina, bueno, adibidez, kutxiloak ere ziren, ba, garai hartan, horrela jartzen zen neurria zen: lau behatz.
- Jose M Zuek ere egiten zenuten hori: lau behatz. Hori izaten zen ia.

- Benito Hori izaten zen ia legezkoa edo, bakoitzak kasi domestikoa esango genuke, ez? Eta hortik gorakoak piska bat nabajeroaren gauzak ziren, ez?, delinkuenteen gauzak, eta abar. Orduan, hori, baita ere, ibiltzen zen, nik ez nuen ibili, egia esan, baina, beti aurkitzen genuen norbait kutxiloa zebilkiena, eta antolatzen genuen, eta, orduan, egiten zen horrelako tiragoma bat, eta erabiltzen genuen askotan gerra egiteko, gerraka ibiltzeko koadrilak jartzen ziren.
- Jose M Zuen artean gerrak?
- Benito Gure arteko, koadrila bat beste koadrila baten kontra, han beti ere asko ibiltzen ginen gu zimitorioetan. Han, Orion, badakizu bi zimitorio eta tunel bat eta txoko-moko asko horrela ibiltzen ginen, asko.
- Jose M Gerrak egiten, eta ezpatak eta horrelakoak?
- Benito Eta ezpatak ere bai, ezpatak bai, guk zine parrokiakian ikusten genituen horrelako pelikula batzuk, eta handik jasotako irudiak eta rekreatzen genituen, ez? Egiten genituen ere ezpatak, makila bat eta pixka bat ezpataren antzekoa, eta, gero, gurutzatzen genion horrelako txiki bat, eta ezpataren antzeko bat egin, eta ibiltzen ginen gerratan, eta abar.

V. ERANSKINA

Jokatu

JOKATU egiten dela, jokatu!, pilotan, kartetan, futbolean...; ez "jolastu". Ditxosozko "jolastu" horrek zer bertute graziazko ote du, zabaldu den bezala zabalitzeko. Malapartatua halakoa!

Nazka hartu diot hitz horri, horra; ezin dut eraman. Eskolako umeei entzuten nien lehen: "goazen futbolera jolastera"; telebistan-eta gero gazteei: "hemen boxeoan jolasteko..." (sic). Orain, ordea, futbolean zein pilotan zein golfean dabilzkigun euskaldun zahar petoenek ere "partidua txarto jolastu dogu; ez diat ondo jolastu..." eta halako disparateak hitzetik hortzera botako dizkigute, lasai demonio geratuz. Esango nuke, gainera, euskara "dotoreagoan" ari direlakoan daudela. Eta inork ez diegu barre egiten, inork ez die deus ere esaten! Nik txikitan behin, gaztelaniaz hasi nintzenean, "Busca un sinónimo de "bajar" y construye una frase" aginduta, "Ménguate del árbol" idatzi nuen. A ze barre algarak eragin nituen! Eta niri gaur egun oraindik, "Iban en sendos caballos" irakurtzen dudanero, zaldi bikainetan zihoazela etortzen zait, eta burla ironikoa egiten didate denek aurpegira. "Orain joaten gera futbolaz jolastea" entzun nion atzo gizon larri bati. Gisa horretako euskara gaiztoaren aurrean, guk ere barrez lehertzen hasi beharko genuke, ea behin lotsatzen diren.

Jokoa ez da jolasa. Umeak herriko plazan (soka-saltoan, txorro-morroka, bale-baleka..., inongo lehiarik gabe) jolasean aritzen dira; Eugik eta Beloki jokatu egin zuten pilota-partida. Jokatu, koanto! Jokoa atsegin hartzeko ariketa arautua da, norgehiagoka; jolasa, denbora pasa. Galde, bestela, hortaz, Errealekoei Bilbon jokatu ala jolastu, zer egin zuten... Jokatu egiten dela, jokatu!, futbolean; ez "jolastu". Utik!

VI. ERANSKINA

(5. bideo-pasartea. Filmaren zatiak: 03.06.29)

Negar batean

Gogoan izatekoa filmaren hasierako pasartea

Irratia Gaurko medikuntza-gaia da: zu eta zure gibela, eta gonbidatu dugun doktorea...
Andrea Uf! Pikutara
Irratia Eta orain singles bets alderantziz, kantariak New Jerseyko Mayi taldea, aurrera...
Jona Kaixo Jona...
Irratia Abizenik ez Jona, ahots gaztea duzula iruditzen zait, zenbat urte dituzu?
Jona Zortzi.
Irratia Zortzi?, eta nolatan zaude esna hain berandu?
Jona Seattle-n ez da hain berandu.
Irratia Egia, arrazoi duzu, tira ba zein da ba zure gabon nahia.
Jona Ez da niretzat, aitarentzat da, emazte premian dagoela uste dut.
Irratia Ah, zer ba? ez al zaizu atsegin oraingoa?
Jona Orain ez du emazterik, hori da arazoa.
Irratia Non duzu ba ama?
Jona Hil egin zen.
Irratia Ohhhh, ikaragarri sentitzen dut laztana.
Andrea Lastima, mutiko gaixoa!
Jona Ni triste gelditu nintzen baina, aita okerrago dagoela uste dut.
Irratia Hitz egin duzu aitarekin honetaz?
Jona Ez
Irratia Zergatik ez?
Jona Tristeago jartzen delako.
Irratia Ah, ulertzen dut, Jona etxean al dago aita orain?
Jona Bai.
Irratia Zertan ari da, lanpetua al dago?
Jona Ez, atarian dago.
Irratia Begira, nik lagun diezaioket baina, horretarako zure laguntza beharko dut.
Andrea Ahhhh, suge gorri ez besterena!, eseki iezaiozu, ez da kasurik ere!
Irratia Telefonora etor arazi egin behar duzu zure aitatz
Jona Bai zera!, hilko ninduke!
Irratia Ez Jona, beragatik kezkatua zaudela konturatzen denean, ez da haserretuko.
Andrea Hik ala dion!
Jona Ongi, baina demanda egiten badit, ez dut gehiago entzungo zure irratsaioa.
Irratia Ederki, konforme nago.
Jona Aita!
Sam Bai
Jona Telefonoz deitzen dizute!, Sam du izena
Irratia Sam?
Irratia Orain sintonizatu bagaituzu, Marsa Filston doktorea naiz eta gaurko gaitzak nahiak eta ametsak ditugu.
Sam Hartuko dut.
Irratia Seattle-ko norbait dugu telefonoz beste aldean
Sam Esan
Irratia Kaixo Sam, Marsa Filston dorkorean naiz Amerika irratikoa
Sam Ah bai? Eta zer saltzen duzu? Barbakoak ala Japoniako ganibetak?

Irratia Nik ez dut ezer saltzen, lagundu egin nahi dizut. Jakizu zure semeak deitu duela eta aholkua eskatu didala, zuk beste emazte bat aurki dezazun.

Sam Nor zara zu?

Irratia Marsa Filston doktorea naiz Amerika irratikoa, milaka pertsona daukazu entzuten.

Sam Irratira deitu al duzu?

Irratia Sam, Sam. Hor al zaude oraindik?

Sam Bai, bai

Irratia Zure semeak esan digu, emaztea hil zitzaizunetik oso atsekabetua zaudela, eta biziki kezkatua dago zutaz.

Sam Aizu, zatoz hona!, irten hortik! Orain ez nauzu bakarrik utziko ezta?

Irratia Bererentzat gogor samarra da, zurekin honetaz hitz egitea, beharbada zuk eta nik hitz egin behar genuke, hala hobeto sentituko da Jona. Sam!

Jona Hitz egiozu, Doktorea da!

Sam Doktorea? Hitz ontzia bai dotorea!

Jona Mesedez!

Irratia Sam!, Sam!, bere Gabon nahia da.

Sam Ongi da

Irratia Pozten naiz. Badakit gogorra dela, baina zenbat da emaztea hil zitzaizula?

Sam Urte t'erdi inguru

Irratia Ahha, izan al duzu harremanik geroztik?

Sam Ez.

Irratia Ez? Zergatik ez?

Sam Marsa ala nahiago duzu Filston doktorea?

Irratia Marsa doktorea

Andrea Marsa doktorea

Sam Marsa doktorea, ez nuke lotsagabea izan nahi, baina...

Irratia Eta nik ez nuke zure gauzetan sartu nahi...

Andrea Ez du ba ematen!

Irratia Aurrera Sam entzuten gaituzu, Sam!

Sam Hasieran oso gaizki pasa genuen egi esan.

Irratia Ahha

Sam Baina, ari gara gainditzen eta Jona eta ni berehala adiskidetuko gara.

Irratia Zer zuen hain berezia zure emazteak?

Sam Zenbat irauten du irratsaioak? Nola esango nuke? Gauza txiki mordo bat zen.

VII. ERANSKINA

(6. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 03.10.25)

Negar errazekoa al zara?

AITOR FURUNDARENA

- Jaime** Aitor Furundarena, egun on.
- Aitor** Egun on.
- Jaime** Negar errazekoa al zara zu?
- Aitor** Ez, ez naiz negar errazekoa, ez.
- Jaime** Ez. Kosta egiten zaizu?
- Aitor** Bai, bai... bai. Ez dakit zergatik, baina bai. Ez da normalki agoantatzea..., ez dakit, nahi gabe edo..., ez dakit, tragatzea edo..., beste joera bat daukat, bai.
- Jaime** Alegia, ez zaizu ateratzen, ala... ateratzen zaizunean eutsi egiten diozu? Eta zeure buruari esaten diozu "ño ez diat, ba, negarrik egin behar".
- Aitor** Kontzienteki ez diot eusten, behintzat. Esan nahi dizut, beharbada, nahi gabe, ba, barruan daukagun zerbait izan liteke, ba, batzuetan ez desahogatzeta edo, nik negar egiteko gogoia baldin badaukat eta okasioak permititzen baldin badit, behintzat, nik pentsatzen dut ona dela negar egitea. Baina, orokorrean, ez naiz negar egiten erraza, eta, gainera, azken aldi honetan oso arrazoi gutxi izan dut negar egiteko.
- Jaime** Hala hobe, arrazoi gutxi izan duzu. Gaurko galdera, hala ere,...
- Aurk. A** Aitor, hala ere, esan duzu okasioak negar egitea onartzen baldin badizu. Zer okasio dira horiek, ba?
- Aitor** Bai, beno, ba, pentsatzen dut, segun ze lekutan, ez dakit, e...
- Jaime** Alegia, lotsa.
- Aitor** E?
- Jaime** Lotsa?
- Aitor** Ba, beharbada, batzuetan lotsa, bai. Batzuetan, lotsa eta, beste batzutan, ez dela egokia gelditzen negar egitea norbaitek, edo, beste batzuetan, esaten duzula "hemen nik negarrez hasten baldin banaiz, besteak alai ari baldin badira, ba,... lagundu ez duzula egiten, esan nahi dut...
- Jaime** Ba, giroa zapuztuko duzu, adibidez, ezta?
- Aitor** Bai, horixe.

Jaime Gaurko galdera, Aitor; noiz egin zenuen azkeneko aldiz negar?

Aitor Nik azkeneko aldiz negar? Joan den larunbatean egin nuen.

Jaime A, bai?

Aurk. A Baina, begira ze pozik esaten duen.

Aitor Bai, negar egin nuen, negar egin nuen, baina barrez ari nintzela. Bai, zeren jotzen ari ginen eta taldekoak barrez hasi ginan danok, eta ezin, beno... benetan izan zen denak... denoi emandako atake antzeko zerbait, eta barrez lehertzen aritu ginan, baina denbora luzez, gainera, eta ezin jorik egon ginen denbora luzez, baita ere, barrez lehertzen, eta negarrez.

Jaime Non zineten?

Aitor Azpeitian jotzen.

Jaime Azpeitian?

Aitor Bai.

Jaime Eta barreak eragindako malkoak atera zitzaizkizun.

Aitor Bai, baina asko, gainera.

Jaime Asko, gainera. Aitor Furundarena agur bero bat, ondo segi.

Aitor Berdin zuei. Eskerrik asko.

MAIDER EGUES

Jaime Maider Egues, egun on.

Maidar Kaixo, egun on.

Jaime Zer moduz?

Maidar Oso ondo. Zuek?

Jaime Gu oso ondo. Ez zinen, ba, negarrez ariko orain, ez?

Maidar Ia-ia.

Jaime Ia-ia?

Maidar Ez, ez keba! Ezta gutxiago ere.

Jaime Ezta gutxiago ere.

Maidar Ez.

Jaime Hain txarra al da?

Maidar Baina, bai barre asko, baina negar errazekoa naiz, e.

Jaime A, bai? Zu ere bai?

Maidar Oso erraza.

Jaime Zergatik ote da?

Maidar Bueno... zergatik? Ez dakit sentimentala edo.. sentikorra naizelako, edo ez dakit nola esaten den.

Jaime Erromantikoa esango luke, igual, beste norbaitek.

Maidar Baita, baita.

Aurk. A Madalena ere bai beste batek.

Maidar Baita, ez dut ukatzen.

Jaime E?

Maidar Ez dudala ukatzen.

Jaime Ez duzula ukatzen?

Maidar Ez.

Jaime Eta gizonezkoa bazina, ukatuko al zenuke?

Maidar Bueno ez dakit; igual, bai. Baina ez litzateke horrela izan behar, ezta? Hori tontakeria bat da. Bueno, baina egia da gizonezkoek badirudi gutxiago negar egiten dutela, edo, behintzat, gorde egiten dutela, ez? Ez dakit, igual, ba, heziketagatik, edo ez dakit zergatik izango den, baina bueno...

Aurk. A Zuk, Maidar, noiz egin zuenen azkeneko aldiz negar?

Maidar Jo! Benetan, ez dut gogoratzen horrela konkretuki, baina...

Jaime Eskerrak negar errazekoa zaren.

Maidar Ez, baina, oso-oso errazekoa naiz, eta, igual, musikarekin edo... edo ez dakit pelikula bat ikusita, edo norbaitekin haserretuz gero... hori errazagoa da, ezta? Baina oso erraz egiten dut, musikarekin edo zer edo zer ikusten edo..., ez dakit, ez dut gogoratzen horrela zehazki noiz, baina orain dela gutxi bai.

Aurk. A Hainbeste negar egiten du, ezin gogoratu.

Maidar Hori da.

- Aurk. A** Eta nolako negarra duzu: isila? Lanturuka aritzen al zara?
- Maidar** Ez, isila, oso isila.
- Aurk. A** Malko lodikoa?
- Maidar** Bai.
- Aurk. A** Eta ondorenean begiak hazten al zaizkizu?
- Maidar** Bai, gorri-gorriak jartzen dira.
- Jaime** Beraz, antzemateko moduan?
- Maidar** Bai, amak beti esaten dit.
- Jaime** A, bai?
- Maidar** Zer gertatu zaizu? Ezer, ezer, ezer. Baina, bueno, ez dut ezkututzen nire... Ezin badut ezkutatu, ba, berdin da; ez dit lotsarik ematen.
- Aurk. A** Eta negar egin ostean telebistan azaldu beharra izanez gero, makilajeen lan handia egin beharko al lukete?
- Maidar** Bueno, igarriko litzateke nonbaitetik: begietan ez bada, ba, animoan, ez? Baina, bueno, momentuz ez zait inoiz gertatu, eta espero dut ez gertatzea; bestela, konpromezu bat da, ezta?
- Aurk. G** Pelikulekin ere negar egiten duzula esan diguzu: eszena arrosekin, heriotzaren bat dagoenean... ?
- Maidar** Heriotza, bueno, bai; heriotz bat dagoenean, edo... bi pertsona maitemintzen direnean, edo...., ez dakit, horrelako eszenekin.
- Aurk. A** Badaezpada ere, painuelo eta guztiz zinemara?
- Maidar** Ez, ez dut eramaten, ez dut eramaten, baina sikatzen dira, ez dakit, beste baten zeran ,edo... bestela...
- Aurk. A** Beste baten zeran, zer? Sorbalda, edo zer da hori?
- Maidar** Izan daiteke.
- Jaime** Bakarren batek ederra izango du sorbalda, orduan, ez?
- Maidar** Bai, busti-bustia.
- Jaime** Eta eusteko, zer modukoa zara? Batzu-batzuetan ez da beste erremediorik izaten, ba, inguruak hala eskatzen duelako, edo zu negarrez hasiz gero, inguruko guztiak negarrez hasiko liratekeelako eta, orduan, sekulako drama izango litzatekeelako hori? Eutsi behar diozunean eusten diozu, ala ez dago modurik?
- Maidar** Ez dago modurik.

Jaime Ez dago modurik?
Maidar Ez.
Jaime Ez, e? Bueno, bueno. Maidar Egues, agur bero bat.
Maidar Mila esker.
Jaime Ondo-ondo segi.
Maidar Bai, berdin.

AITOR ELKORO

Jaime Aitor Elkoro, egun on.
Aitor Aber bai. Egun on, bai.
Jaime Zer moduz ondo?
Aitor Ondo, ondo.
Jaime Aizu, eta Bergara ezker egin al duzu negarrik sekula?
Aitor Non? Bergaran?
Jaime Orain dela bi edo hiru urte izan zen ez? Bergaran?
Aitor Ez, ez, ez
Jaime A, ez?
Aitor Ez dakit zer informazio duzuen baina...
Jaime A! Gaizki gabiltza gu?
Aitor Bai, nik uste baietz, aspaldi, aspaldi izan zen, horrela negar formal, esaten dena formal, egin nuen baten zen, orain dela... lehendabizi debutatu nuenean, orain dela.... hemeretzi urterekin debutatu nuen profesioaletan eta esperantza handia jarrita neukan pilota mundu horretan eta oso gaizki hasi nintzen, oso gaizki bi partidutan edo hiru partidutan akordatzan naiz oso partidu kaxkarra egin eta bestuarioetan negarretan hasi eta ezin bukatu ezta?
Aurk. A Luzaroan iraute al dizu ba negarrak?
Aitor Zenbat?
Aurk. A Bai, luze irauten dizu?

- Aitor** Zenbat denbora?
- Aurk. A** Bai
- Aitor** Bueno, horrelako kasutan...
- Jaime** Asko?
- Aitor** Asko, asko honbre denboraz ez dakit, baina, egun hartan, behintzat, ikaragarri egin nuen negar, ba, batez ere, amorrazioz eta, bueno, inpotentziaz, ez?
- Jaime** Gogotik egin zenuen negar?
- Aitor** Bai, bai, bai
- Aurk. A** Amorruek eragindakoa alegia
- Aitor** Bai, bai, ze esan dizut, ba, ilusio handia jarrita neukan da, horrelako gaizki hasi eta horrelako partidu kaxkarrak egin da, azkenean ba explotatu eta egiten duzu eta amorrazioak hasi negarrez eta ia bukatu ezin, ezta?
- Aurk. G** Eta kantxatik kanpo Aitor, esate baterako pelikula bat ikusten duzunean, negar egiten al duzu?
- Aitor** Ez, ez, ez normalean pelikula batekin ez, orain emaztea bai, emaztea ondoan jartzen bada, hasten da negarrez, eta bueno...
- Aurk. G** Kanila irekitzen du, eta...
- Aitor** Honbre egoten dira horrelako pelikula oso sentimentalak, baina, konturatzen naiz hori ez dela egia, pixka bat konturatzen naiz errealitatea ez dela, eta, orduan, ez zait irteten negar malkorik ez
- Jaime** Eta lotsarik ez dizu ematen?
- Aitor** Negar egiteak?
- Jaime** Bai, adibidez, kantxan edo aldageletan? Amorrazio horrekin eta negar egitea?
- Aitor** Ez, ez nik uste dut, hori gaztetan errazago irteten dela negarra, nik usten dut edadearekin, ez dakit zelan esan, gizontzen edo.... errealitatea hobeto onartzen duzu; orduan, momentu txarrak ere hobeto ikasten duzu pasatzen, eta nik usten dut hori edadearekin piska bat ikasten joaten dela, ezta?
- Aurk. A** Eta negar egindakoan lasaitu egiten al zara? Ezertarako balio al du negar egiteak?
- Aitor** Bai, bai, bai nik uste dut, barruko zer hori irteten egiten dela eta lasaitu egiten dela, ezta? Nik uste dut baietz. Eta barruak ez dagoelako zertan eduki beharrik, negar gogoia baldin baduzu, ba, onena da...
- Jaime** Egin eta...
- Aitor** Egin eta....

- Jaime** Lasai geratu
- Aitor** Bai, bai, lotsa ez eduki horregatik
- Aurk. A** Negarra bakarka, norbaiti helduta nola egin behar da halakoetan?
- Aitor** Bueno, ez dakit, ez dakit, nik pertsonalki, ez dakit, ez dakit, kasu horretan jarrita.... norberak ikusten du baten bat baldin badaukazu penak kontatzeko, ba..., onena da beste batekin, ezta? Baina bakarrik suertatzen bazaizu, ba..., bakarrik, ez?
- Jaime** Aitor Elkoro, agur bero bat zuri ere, eskerrik asko
- Aitor** Bale, mila esker zuei
- Jaime** Ondo segi
- Aitor** Bai, berdin.

VIII. ERANSKINA

(7. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 03.20.25)

Neska-mutikoei egindako elkarrizketa

Aurk Ez dakit gure txikiek negar asko edo gutxi egiten duten, baina gogoan ote dute noiz egin zuten azken negar-saioa?

- Bai, orain dela bi urte, hanka puskatu nuela.
- Aspaldi, orain dela bi hilabete, erori eta bizikleta puskatu nuenean eta kriston letxea hartu nuenean.
- Arratsalden.

Aurk Atzo arratsaldean? Eta zergatik egin zenuen negar?

- Amamak ez doste itxi kentzen txaleku, eta horregatik.
- Bizikleta bat kriston pila patuta, eta, gainera, nik ia hanka hautsi egin nuen, dena odoletan. Ze ustezu?
- Bizikletatik erorita; ze izango da, ba?

Aurk Bale, bale. Argi dago bizikleta dela eta ez dela negar asko egin duzuela. Aizue, baina gehiagotan ere egingo duzue, ez?

- Bai, jausten naizenin eta.
- Keba! Ez da bate.
- Nahi izaten dot amatxok ipuina kontetea. Eta esaten dot: ama etorri. Hontxe nator. Eta esnia ekartozte, eta, gero, ipuina kontatozte eta gero negar iten dot amatxori.
- Nik parra besterik ez.
- Ez, aguanta, aguanta egin bihar.

Aurk Eta zuen anaia-arrebek noiz egiten dute? Zergatik egiten dute negar?

- Zaplastekoa jotzen diozunean.
- Esaten diozu zer edo zer, ematen diot ipurdiko bat, eta ia negarrez hasten da, amana joaten da, eta horixe.
- Jausi eta egiten delako, neure modun.
- Bronkia eta botatzen zaielako.
- Ni telebista ikusten ari naizenean berari ez diot berak nahi duena ikusten uzten. Ordun...

Aurk Beraz, zer esan nahi duzue: neskek mutilek baino negar gehiago egiten dutela?

- Segun, segun zertan; pues, igual, neska bati jotzen diozu baloiarekin burun, eta negarrez hasten da; eta guk joaten gara eta aguantatu egiten dugu. Eta, igual, batek, pues, igual, batek azterketa kateatzen du mutil batek, eta negar egiten du, igual, eta beste batek, neska batek, kateatzen badu, ez du, igual, ez du egiten.
- Ez, eskolan ez, ez, eskolan bapez.
- Batzuk bai, andereñok bronka edo botatzen baie, edo lurrera batzuk erortzen badie eta mina handi bat hartzen badute.
- Batzuk, ba, burukatzen dianean.

Aurk Bale, beraz, arrazoi bat edo besteagatik gutxitan, oso gutxitan, egiten duzue negar, ezta?

- Bai.
- Oso gutxitan.
- Gutxitan.
- Nik ere gutxitan, baina.
- Aguanta, aguanta egin behar.

IX. ERANSKINA

(8. bideo-pasartea. ETB: 03.23.12)

Giza aberea-gene hilezkorrak

Jolastokietako anabasa eta istiluen erdian ordena jartzeko, jende helduok arauak ezartzen ditugu joko organizaturako, ekipo aukeratzea, adibidez. Ekipo bateko kideztat aukeratua izatea estatu sozial baten ezaugarria da, taldean onartua dela adierazten du. Haur-kopurua bakoitia bada, norbaitek kanpoan geratu beharra dauka, eta hau garrantzirik gabeko huskeria dela iruditzen bazaigu ere, kanpora geratu den ume horrentzat ez da horrela. Une horretan erabat baztertua sentitzen da, eta zaila egiten zaio hori jasatea.

Gizakiok animalia sozialak gara, horregatik, baztertutak izatea zigorrik txarrenetakoa da. Lezioa gogor hau ere haurtzaroan ikasten dugu.

X. ERANSKINA

(9. bideo-pasartea. ETB: 03.24.36)

Giza aberea biziraupenetik aurrera (II)

Jolastokietako istiluen erdian ordena jartzeko, helduok arauak ezartzen ditugu joku organizaturako, ekipo aukeratzea, adibidez. Ekipo bateko kideztat aukeratua izateak taldean onartua dela adierazten du. Haurkopurua bakoitia bada, norbaitek kanpoan geratu beharra dauka, eta hau garrantzirik gabeko huskeria dela iruditzen bazaigu ere, kanpoan geratu den ume horrentzat ez da horrela. Une horretan erabat baztertuta sentitzen da, eta zaila gertatzen zaio hori jasatea.

Gizakiok animali sozialak gara; horregatik, baztertuak izatea zigorrik txarrenetakoa da. Lezioa gogor hau ere haurtzaroan ikasten dugu.

OHARRA:

Aurreko bideo-pasarteko testu egokitua da, bi aldiz jarraian grabatua (bigarrenean, motelxeago).

XI. ERANSKINA

(10. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 03.27.24)

Eta zer?

- Arantxa *Nik erre-merre hitz egiten dut, eta zer?* Eta nori enkargatuko liburua, eta... Anjel Lertxundiri.
Anjel, kaixo, egun on.
- Anjel Bai, kaixo, egun on, Arantxa.
- Arantxa Pentsatzen dut enkarguzko lana izango zela.
- Anjel Enkarguzkoa Anjel Lertxundiri.
- Arantxa Hainbeste izen izanda inguruan... Baina, egia esan, ondo pasa bai, baina Betok dezente sufritzen du hasieran, beno, desberdina dela konturatzen denean, ala?
- Anjel Bai, lagunek barre egiten diote erre-merre hitz egiten duelako, eta bera ere hortaz ohartzen da, eta nahi du zuzen hitz egin eta ahalegintzen da erre gabeko hitzak esaten eta abar eta abar. Orduan, horrek esan nahi du sufritzen duela. Baina gero pixkanaka-pixkanaka, bueno, bere buruari neurria hartuko dio.
- Arantxa Bukaera ez dugu kontatuko, dezenteko umorez buelta hartuta dagoelako, gainera; hala ere, tartean erremedioa jartzen saiatzen dira. Zure garaian —ez dakit, Anjel— erremedioa jartzen saiatzen ote ziren?
- Anjel Bueno ni gogoratzen naiz niri ahaleginak egiten zizkidatela zerakin: "Rokeren txakurrak ez daki kitarra jotzen" eta horrelakoak esanaraziz, baina oso gutxi iraun zuen. Nik uste dut neu egoskor nintzelako eta, seguru asko, neu ere ez nintzelako hainbeste jabetzen nuen horretaz, ez? Eta, agian,insistitu ez zutelako, nik ez nuen trauma handirik izan horregatik.
- Arantxa Esan dugu sail berezi bat dela hau, *eta zer?* Zortzi urtetik aurrerako umeekin pentsatua da. Erraz kokatzen zara zu zortzi urteko umeentzat idazteko orduan?
- Anjel Bueno, gaia edo ingurunea edo tartean izanez gero edo, ba, ez dakit, segun, gaiarekin asmatzen baldin baduzu, bai.
- Arantxa Badu berezitasun bat, gainera, sei hizkuntzatan kaleratuko direla liburuok. Ikusi al dituzu beste hizkuntzetan?
- Anjel Bai, bai, ikusi ditut, bai.
- Arantxa Eta nola da erre-merreka galegoz?
- Anjel Erre-merreka galegoz, ba, antzera Roberto izena du baita ere, eta, gero, esana da idatzi aurretik, hainbat hitzekin eta jokoak egiterakoan, hartu behar izan nuela, eta beste hizkuntza guztiak erromanikoak izanik, ba, ez zeuden aldaketa handirik. Baina, dena dela erreferenteak sartu behar izan nituela, bai katalana, bai espainola ere, nik egiten nuen hitz-jokoak euskaraz gero itzulgarriak izan zitezen, edo erraz samar bihurtuak izan zitezen.
- Arantxa Zure liburua irakurtzen duen neska-mutil gaztetxoak zein irakurketa egitea gustatuko litzazuke?
- Anjel Bueno, irakurketa umoretsua, eta, nolabait, bere buruak ere, beharbada, errerik ez du, baina, hizketarakoan beste falloren bat badu, edo elementu fisikorik badu gustatzen ez zaiona eta, bueno horiek ere ispilu aurrean begiratu, eta pixka bat erlatibizatzea.

SEBE CALLEJA

- Arantxa Anjel Lertxundik euskaraz egin duen bezala, Sebe Callejak gazteleraz idatzi du *Estoy gordito, y que?*, alegia, euskaraz *Potoloa naiz*. Sebe Calleja, kaixo, egun on.
- Sebe Aupa, egun on.
- Arantxa Zuk ere zer egin zenuen? Enkarguz egin zenuen liburua?
- Sebe Ez, ez zen horrela. Begira, jatorrizko ideia gure artean sortu zen, hemen bertan, bilduma txiki batean, eta hasi gara pentsatzen nola bultzatu aniztasuna umeen artean, haurren artean aniztasuna, eta horrela sortu zen, lehendabiziko ideia hori zen, potoloarena.
- Arantxa A! Lehendabiziko desberdintasuna potoloarena zen, a, guk pentsatu dugu aber Sebe potolo-potoloa zen eta berak sufritu zuen txikitan potoloa zelako...
- Sebe Txikitan ez, oso argala nintzen.
- Arantxa A, bai?
- Sebe Bai.
- Arantxa Alegia, zuk ez zenuen sufritu *gozo-bonbak* sufritu duen adina?
- Sebe Ez, baina badakit zer den hori, umeen artean ikusten dudalako; orduan, normalean, ereduak hor daude: arrakasta, edertasuna eta erakargarritasuna, eta eredu hori betetzen ez baduzu, ba, nolabait, baztertuta geratzen zara.
- Arantxa Kanpora geratzen zara, ezta?
- Sebe Eta umeak ere horrela sentitzen dute. Orduan, nolabait, hori, kontra egiteko, asmatu genuen honelako istorio txiki batzuk, ba, nolabait, bakoitzaren gaitasuna bultzatzeko, nahiz eta berezitasun bat edukitzea ondo legoke; horrela, zu ume potoloa zara, baina, horren ondoan, esate baterako, indartsua zara ere bai.
- Arantxa Zortzi urtetik gorako neska-mutilentzat pentsatutako saila da. Zuk arazorik izaten duzu kokatzeko, alegia, ondo dakizu zortzi urtetik gorako, zortzi urtetik beherako, ez dakit, umeen mundu hori ondo ezagutzen duzu?
- Sebe Uste du baietz, irakaslea naizenez. Helduekin nago, baina, familian ere badagoela txikiak eta gure eskaileran, inguruan badaukagu honelako ereduak, fijatzeke, kopiatzeke.
- Arantxa Ez da zaila. Orain, zure *gozo-bonba* berezien istoria sei hizkuntzatan da jada kalean. Nola esaten da potolo galizieraz?
- Sebe Ez dakit, gordito edo... ez dakit, ez dakit, benetan.
- Arantxa Eta aragoieraz, asturieraz, katalanez?
- Sebe Gordu, gordu, badakit zazpi hizkuntzetan dagoela, baina gustatuko litzaidake denak ezagutzea, bai, egia da.
- Arantxa Orain zertan ari zara, Sebe?
- Sebe Klaseak ematen eta antologia bat prestatzen, eskolarako antologia literario bat, eta hor asmatzen, istorioak asmatzen. Badaukat beti bat buruan, baina normalean aprobetxatzen dut oporraldia, horrelako kontuak egiteko.
- Arantxa Idazteko eta egiteko. *Potoloa naiz* irakurtzen duen neska-mutiko gazteak zein hausnarketa egitea gustatuko litzazuke?
- Sebe Diodana ja. Begira, ni potoloa naiz, edo txikia, edo mehea, edo, ez dakit, betaurrekoduna, baina zer? Baina badaukat beste gaitasun bat eta hori bultzatu egin behar dut, hori...Horretarako balio badu, primeran.
- Arantxa Zu ja konforme?
- Sebe Bai, bai.
- Arantxa Sebe Calleja, eskerrik asko.
- Sebe Zuri.

ANDONI EGAÑA

- Arantxa Eta hirugarren adibidea Andoni Egañarena da. Andoni Egañak *Niri ez zait futbola gustatzen, eta zer?* lana egin du sail honetarako. Andoni Egaña, egun on.
- Andoni Kaixo, egun on.
- Arantxa Zuk ere enkarguz?
- Andoni Enkarguz, bai.
- Arantxa Hala ere, zure kasuan, Andoni, gaia planteatu egin al zizuten, ala zeuk aukeratu zenuen, ze zuri futbola gustatu gustatzen zaizu?
- Andoni Bai, futbola gustatzen zait niri, bai; ez dakit enkargatu egin zidaten gaia ere... Bueno, seguru aski, Mitxel Murua editorearekin batera adostuko nuen gaia hori izan zitekeela.
- Arantxa Hala ere, zuk ez zenuen inoiz sufrituko mutikotan, mutila izan eta futbola ez gustatzeagatik, ala?
- Andoni Ez, ez, baina, bueno, polita da bestearen azalean jartzearen ariketa.
- Arantxa Politia eta erraza?
- Andoni Bai, ez zaila. Nahiko estereotipatua dago futbolaren mundu hori eta, gainera, kasu honetan, sexismoaren kontua ere nabarmena da, ezta? Futbola gustatzen ez zaion neskarekin ez da ezer pasatzen, baina futbola gustatzen ez zaion mutila pixka bat baztertua edo geratzen da.
- Arantxa Ikusi al duzu liburua sei hizkuntzatan?
- Andoni Bai, bai.
- Arantxa Eta zer inpresio egiten du?
- Andoni Arraroa, ez dakit. Arraroa da zuk zeure etxeko ordenagailuan eta euskaraz pentsatu eta euskaraz egindako zerbait, gero sei hizkuntzatan ikustea, ezta? Bueno, polita da.
- Arantxa Eta irakurtzen duen gaztetxoak, bueno, kasu honetan, mutikoak esan beharko dugu, zeren bereziki mutil koskorraren arazoa...?
- Andoni Edo neskatoak, ezta?
- Arantxa Bai, baina, kasu honetan, zuzenean arazoa badirudi gehiago dela —zerorrek esan duzu lehen— futbola gustatzen ez zaion mutil koskorrarena, ez?, ez hainbeste neskarena. Zer pentsatzea nahi zenuke?
- Andoni Zer pentsatzea? Bueno, futbola ez gustatzea oso gauza normala dela, gustatzea den bezalaxe, eta, bueno, aukera hori aukera normal bat dela, eta gainontzeko gauzekin disfrutatzen baldin badu, badagoela nahiko gauza disfrutatzeke.
- Arantxa Andoni Egaña, eskerrik asko.
- Andoni Ez horregatik.
- Arantxa Ostegun arte.
- Andoni Bale, gero arte.

XII. ERANSKINA

(11. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 03.35.48)

Baloika

"Iker, hona" oihu egin nion gure atezainari. Porteriatik ni nintzen hurbilena, eta ez nuen kontrariorik inguruan. Ikerrek sake motza egin zuen nire aldera, inoren trabarik gabe bildu nuen baloia. Banekien ez nuela gehiegi urrundu behar, atzelaria naiz eta nire lana defentsa da, besteen erasoak geldiaraztea eta golik sartzera ez uztea. Zelai erdira ailegatu baino lehen, Koldok, gure entrenatzaileak, mantsotzeko agindua eman zidan marraz beste aldetik -Lasai, Migeltxo-. Ez nengoen lasai, futbito-taldea sortu genuenetik lehen aldia zen bigarren fasean ginela, eta partidua irabazi behar genuen final-erdietan sartzeko. Ez zen lan erraza. Launa berdindurik geunden, eta laugarren denboran ginen. Partidua bukatzeko bost, sei minutu baizik ez zen gelditzen. Gainera, EL BORDINen kontra ari ginen, haien zelaian, eta sekulako zalaparta zebilen gure inguruan, inoiz ez bezalako oihu ozenak denak: BORDIN, BORDIN, BORDIN. Haien artean gure aita-amen eta anai-arreben IKASTOLA, IKASTOLA aditza ezinezkoa zen, kasik. Haienetako bat heldu zen niregana: hirua; ezagutzen nuen, zozo aurpegiko belarri-tente bat. Kezka gutxi niri, sei-zazpi aldiz egin genuen topo partidua hasieratik, eta bakar batean ere ez zen baloia berak....

XIII. ERANSKINA

Baloika (liburuko pasarte bat)

Ostiko garbia izan zen, eta nahitara emanda. Baloia gutxienez metro bat haratago zegoen guregandik. Hala ere, arbitro kaskopelatuak ez zuen faltarik seinalatu. Ezta gola anulatu ere. Guri erdiko sakea egiteko agindua eman zigun, deus gertatu ez balitz bezala. Lehenago, bankillora eraman behar izan ninduten, eta Koldok etsiturik, Eneko zelairatu zuen nire partez.

Orduan, aita atera zen zelai erdira.

Gure aita ez da futbolzalea. Ekarri, hark ekartzen baninduen ere, lehen urtean autoan gelditzen zen egunkariak irakurtzen, partiduen erdia ere ikusi gabe. Bigarrenean hasi zen pixka bat zaletzen, baina orduan ere gutxitan aritzen zen beste aita-amak bezala, gure alde txaloka eta eupaka. Are gutxiago arbitroari edo besteei oihuka. Eta gauzak guretako gaizki joan izanez gero, bazuen esaldi bat, niretako gorrotagarria: *galtzen ere ikasi behar duzue*.

Pentsa, beraz, zer ustekabea izan nuen, aita zelai erdian ikustean, zuzen arbitroarengana. Ni bankilloan nintzen, Ikerren amaren eta Beñaten aitaren artean benda bat lotzen ari zitzaizkidan eta aski lan nuen negarra atxikitzen. Hala ere, ederki ohartu nintzen aita protestaka ari zitzaiola, Zerri-finak niri egindako falta eta haien gola zela-eta. El Bordingo beste aita batzuk zelairatu ziren orduan, eta kaskopelatuaren inguruan jarri, aitari garrasi egiten ziotela:

- *Fuera! Fuera!*

Uste dut une horretan idortu zitzaidala negarra, hain harriturik bainengoen gizon korbatadun eta hain dotore jantziak, oro keinu eta espantu, hain zakar ikusirik. Gureak ere abiatu ziren orduan:

- Kanpora! Kanpora!

Berehala, zelaia aita-amaz bete zen –haienak eta gureak–, denak elkarri zernahi erranka, eta beren lekuan geldituak zirenak ere txistuka eta zalapartaka ari ziren, batzuk alde eta besteak kontra. Haiek beren terrenoan zeuden, ordea, eta gu baino askoz gehiago ziren, arbitroak gorri-gorri eginda, partidua bertan behera utzi zuen. Niri egindako falta ontzat eman gabe eta haien gola anulatu gabe.

El Bordingo zaleek gogotik egin zioten txalo, baita haien jokalariek ere. Zerri-finak, niri ostikoa emanda gola sartu zuenak, inork baino zaratatsuago. Haieneko hainbat aita-amak eskua eta guzti tinkatu zioten kaskopelatuari.

- Ongi, arrunt ongi egon zara.

Horietako bat begiz joa nuen. Gizon luze meharra zen. Traje iluna zuen eta hark ere ilea atzera orraztua zeraman. Aitarekin mokoka ari izanetariko bat zen. Arbitroari zorionak erranda, Zerri-finarengana hurbildu eta hari eskua luzatu zion:

- Ederki seme, zu irabazle beti. Noiznahi eta nolnahi, irabazle.

XIV. ERANSKINA

(12. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 03.37.46)

Baloika

- Aurkezlea Aingeru Epaltza, arratsalde on.
- Aingeru Baita zuri ere.
- Aurkezlea Baloika, futbito baloitik, ezta?
- Aingeru Bai
- Aurkezlea Eta zer gertatzen da, ba, baloiaren inguruan?
- Aingeru Baloien inguruan, hau da, pixka bat futbito talde batean edo ardaztutako nobela da. Hor protagonista haur bat da, jokalaria da halako futbito talde batean, defentsa da; beraz, bere eginkizuna ez da golik... golik sartzea, ezta?, baizik eta atzean gelditzea eta defendatzea, eta baina, klaro, zer gertatzen da horrekin? Berak golak sartzeko amorratzen dabilela, eta entrenatzaileak ez diola uzten, atzean gelditu behar duelako.
- Aurkezlea Defentsa delako
- Aingeru Bai.
- Aurkezlea Gaia gaztetxoaren partidua, urduritasuna, lehiakortasuna, guraso aztoratuak...
- Aingeru Bai, gurasoak. Nik uste dut, gainera, bueno, gurasoek nolabaiteko protagonismoa ere badutela, ez? Beno, azken batez, nik bizi izan dut pixka bat esperientzia hori; ni ez naiz batere futbolzalea, baina, azken batez, beti seme-alabek eramaten zaituzte nahi ez duzun bide batetik, eta tokatu zait, seme txikia ikaragarri zaletu delakoz halako zeretaren egotea. Eta horretan deigarriena beti izan zait hasieratik, nolabait ere, gurasoen erreakzioa, ez? Oso pertsona serioak eta ematen zutenak nola asaldatzen diren ikusita, ez beren ekipoak edo galtzen duela edo ez duela irabazten edo, baizik eta beren semeen ekipoak ez duela irabazten, ez? Eta horrelako gauzak ere sartu izan ditut.
- Aurkezlea Edo bankiloan gelditzen dela.
- Aingeru Edo bankiloan gelditzen dela.
- Aurkezlea Ez dakit zer den okerragoa.
- Aingeru Edo ez dakit nor ateratzen dutela, jende guztiak dakielarik horrek ez duela sekula ere golik sartuko, eta horrelako gauzak, ez? Oso erreakzio barregarriak izaten dira, eta nik uste dut, gainera, nolabait ere, helduak barregarri gelditzen garela haurren aitzinean, ez? Eta horrelako gauzak eta istorioak ere sartu ditut; mendekuren bat ere, mendeku pertsonalen bat ere bada hor tartean eta...
- Aurkezlea Aprobetxatu egiten duzu, orduan. Detalle bat da Aingeru, baina futbito-taldean mutilak eta neskek denak batera jarri dituzu.

- Aingeru Bueno, bai, neskak ere sartu ditut, bueno, ba, gero eta gehiago ikusten direlako, hori errealitate bat da; adibidez, gure semearen ekipoan ere neskaren bat ere bazen, ez? Eta ez da bakarria, gero bertze batzuk eta ikusi ditugu, eta nik uste dut horretan ere... eta, gainera, halako zertzeladak batzuk ere badira, antimatxistak eta. Eta, normalean, gainera, futbitotako eta futbol, oro har, futbolearen ere giroa ere oso matxista delako eta nik uste dut kirol-munduan ere oso matxista da, oro har, oraindik, eta, bueno, nik uste dut liburu batek ere alde horretatik funtzio hezitzaile bat baldin badu, ba, hobe.
- Aurkezlea Liburua noiz kaleratuko duzue?
- Aingeru Liburua berez egina dago. Aste honetan edo sartzeko... sartzekotan zegoen hor makinetan, eta aste-hondarrean nik uste ortziralean ez bada, heldu den astelehenean edo ja lehendabiziko aleak eman behar zizkidaten, baina banatu, azkenean, ekainaren bukaeran gaude, ja klaseak bukatzen ari dira toki guztietan, eta ez da, seguru aski, garairik hoberena liburuak saltzeko, ekainean saldu behar ziren liburuak salduta omen daude, eta irailean banatu, banatzen hasiko da, edo irailean ailegatuko da, irailean edo abuztuaren hondarrean edo hasiko da ailegatzen liburudendetara.
- Aurkezlea Abuztuaren hondarrerako...

A ARTIKULUA

GAZTETXOEK ENTRENATZAILERIK ONENAK BEHAR

Jaionek izugarritzko kolpea hartu eta konortea galdu du. Partidua bukatzeaz zegoen, Jaionek eta beste taldeko jokalaria batek baloia harrapatu nahi izan zuten. Baina Jaionek txorkatila bihurritu eta saskiaren eustaga jo zuen. Partidua Jaioneren taldeak irabazi du, 60-50. Baina Jaionek ezin izan du bukaera ikusi. Orain erietxean dago. Ez da ezer gertatu, susto galanta, hori bai. Eta ondoan dauka, beti bezala, bere entrenatzailea, Karmen. Karmen Jaionerekin etorri da anbulantzian, berarekin batera sufrizuz. Jaione --14 urte ditu-- alaba bezala da Karmenentzat, eta neskak arazoren bat duenean, kontatu egiten dio Karmeni.

Istorio hau asmatua da, baina zenbat Jaione eta Karmen ote daude kirolaren alorrean? Asko eta asko, futboleko entrenatzailea den Tomás Bosque gazteak esan digun bezala: "entrenatzaileak aita, ama eta osaba-izeba bihurtzen dira". Eta gztetxoak direnean, erresago kontatzen omen dituzte beren arazoak: "Baina jokalaria batek zerbait kontatu eta gero, nik horregatik bakarrik, ezin dut zelairatu. Hori ezin dut egin. Nik oso ondo ezagutzen ditut jokalaria, eta momentu bakoitzean partidua irabazteko jokalaririk egokienak aukeratu behar ditut". "Baina jokatzeko aukera denek izan behar dute. Bestela, ilusioa galdu egiten da" esan digu Lezaman pilota-entrenatzailea den Juan Mari Dañobeitiak.

Noiz hasi lehian?

Aukeratuak eta aukeratu gabeak. "Beraiek ez dizute ezer esaten, baina ni, ni ere jokalaria izan naiz eta, konturatu egiten naiz. Batzuetan aukeratuak eta aukeratu gabeak elkar ezin eraman izaten dute" esan digu Tomás Bosquek.

Noski, aukeratu behar hori ez da kirola guztietan gertatzen eta, gertatzen bada, ez hasiera-hasieratik. Marina Lobo Soinketa Hezkuntzako irakaslea da Gasteizko ikastola batean, eta gimnasia artistikoan entrenatzaile: "Kirola hau oso selektiboa da. Kirola hau egiteko kalitate onik ez badute, neskek berek egiten dute atzera. Baina beren artean ez dago lehiarik. Nola egongo da ba? Euskal Herrian oso jende gutxi dago gure kirolean, eta beren artean egin behar izaten dituzte lehiaketak".

Gurasoen kritika txarrek
min handia ematen dute

Marinak sei urterekin hartzen ditu neskatilak, eta helduenek hamasei urte dituzte. Zortzi-bederatzi urte bete arte erdi-jolasean aritzen dira, eta ia ez dira konturatzen zertan ari diren. Beraz, hemen ez dago lehiaren arrastorik. Tomás Bosque adin horretan lehia ez izatearekin ez dago hain ados: "Lehia txiki-txikitatik da beharrezko, baita sei urterekin ere. Denok dakigu zein gizartetan bizi garen, eta inori ez zaio galtzea gustatzen. Irabazten jakin egin behar da, baina galtzen ere bai. Irabazten jakitea bezain inportantea da galtzen jakitea. Eta mutikoek jakin behar dute galtzen denean ez dela mundua akabatzen. Baina lehia inportantea da".

Gurasoen betebeharra

Gurasoen laguntzarik gabe ezin da ezer lortu. Hori oso ondo daki Marina Lobok: "Irteera asko egiten ditugu, eta gurasoen laguntza behar dugu bidaiak antolatzeko eta. Gero hilabetean behin bilerak egiten ditugu eta dauden arazoak han azaltzen dira".

Zenbait kirolean gurasoek entrenatzaileak adina dakitela uste izaten dute eta istiluak sortzen dira guraso eta entrenatzaileen artean: "Gimnasia puntuaketa berezia dago, eta gurasoei azaldu egiten diegu beren hurrek puntuaketa nola lortu duten" esan digu Luis de Eguino gimnasia entrenatzaileak. Horregatik inportantea da guraso eta entrenatzaileak ondo konpontzea. Juan Mari Dañobeitiak esan digun bezala, "Aitekin problema itzelak izaten dira. Batzuek ez dute konprenitzen besteen hurrei ere atxeratu egin behar zaiela. Kirola inportantea da, baina inportantea mutila hezte da, giro sanoan hezte, gizon egitea". Tomas ere ezerk min ematen badio, gurasoen kritikak ematen dio: "Hori gogorra izaten da. Ni gustura ari naiz, hor ibiltzen gara aurrera eta atzera mutikoekin. Norbait zauritzen bada, berarekin erietxera joan, gero gurasoak lasaitu eta abar, eta batzuetan dirua galdu ere egiten dut, baina ez zait inporta; eta, gero, gurasoengandik erantzun txarrak..."

Irabazten jakin egin behar da,
baina galtzen ere bai

Entrenatzaileak kirolari-ohi

Entrenatzaile guztiak ados daude. Entrenatzaileak kirolean ibilia izanak bere alde ona du: "Kirola egiteko asko sufritu behar da, eta kirolaria izan ez denak ez du hori konprenitzen" dio Juan Marik. Baina hori ez da nahikoa. Entrenatzaileek ikastaroak eta behar dituzte hurrei nola irakatsi ikasteko. Tomás Bosquek prestakuntza fisikoan ikusten du hutsunerik nabarmenena: "Ni neure borondaterik onenarekin arituko naiz, baina entrenamenduak nola planifikatu ez badakit kirolean ikasitakoa irakatsiko dut. Jakin egin behar dut, ordea, adin bakoitzean zein ariketa fisiko egin behar duen mutikoak. Horregatik da hain inportantea preparatzaile fisikoa, titulua duena, SHEEkoa edo. Horretarako egin dute bost urteko karrera bat. Noski gu ez gara horretatik bizi. Eta horrelako entrenatzaileek ere ikastaroak egin behar dituzte, baina bost urtean ikasten dena ez da ikastaro batean ikasten. Horregatik esaten dut nik entrenatzaile onenak gaztetxoekin egon behar dutela, eta ez alderantziz". Izan ere, entrenatzaile on batek on asko egin dezake, baina baita txarrak kalte handia ere: "Ohitura txarrak hartzen badira, gero gaitza da hori zuzentzen" dio Juan Mari Dañobeitiak.

B ARTIKULUA

LUIS MARI ZULAIKA: "Ezinbestekoa da hurrekin eliteko kirola eta heziketa-kirola bereiztea".

Luis Mari Zulaika zarauztarra soinketa-irakaslea da Ordiziako institutuan, eta 1999an irakurri zuen tesia argitaratu berri du. Haurrentzat kirola hezigarri izan daitekeela ondorioztatu du tesian, baina horretarako egoki bideratu behar dela.

Zergatik aukeratu zenuen heziketa fisikoa eta autoestimua gaia tesirako?

Eskolako kirolean jarduten garenok nahikoa kezkatuta gaude. Teorian helburu nagusia haurraren osotasunezko garapena lortzea da, baina eguneroko errealitatean hortik urrundutako hainbat jokaera ikusten dira, bai hezitzaile eta monitoreen aldetik, eta baita entrenatzaile, guraso eta atzetik dauden gainerako interesen aldetik ere. Hori ikusita, tesiaren bizkarrezurra, ikaslearen autoestimua heziketa fisikoaren bidez hobetzea posible den ala ez ikertzea izan da.

Hautzaroen kirola oso garrantzitsua dela esaten digute. Zuk kirolaren ikuspegi desegokiak aipatzen dituzu.

Kirola oso ona da haurarentzat, baina hezitzailea izan dadin baldintza batzuk bete behar dira, eta beti ez da horrela izaten. Hiru elementuk egiten dute kirola ez hezigarri: gehiegizko lehiakortasunak, espezializazio goiztiarrak eta hautatze-irizpideak. Hau da, goi-mailako kirolean lehentasuna duena garaipena da, baina, haurraren heziketa egokia nahi badugu, formazio-adinean helburua ez da emaitza izan behar. Bestetik, motrizitate-gaitasun desberdinak lantzea komenigarria denez, haurrak kirol desberdinak praktikatu behar ditu, ez da egokia bakarria egitea.

Goi-mailako kirola erreferentzia al da haur- eta eskola-kirolean?

Bai, eta, *hori* ikusteko, nahikoa da asteburuetan eskoletako patioetara hurbiltzea eta publikoaren jarrera goi-mailako kirolekoen antzekoa dela ikustea; epailearekiko jarrera, aurkariari zer errespetu zaion... Argi izan behar dugu ezinbestekoa dela goi-mailako errendimendu-kirola eta kirol hezigarria bereiztea, helburu eta espektatiba desberdinak dituztelako. Hainbat federaziok harrobia eskola-kirolaren barnean sartzen dute, eta eskola-kirolaren helburua ez da figurak sortzea, haurrak bere burua kirolera zaletzea baizik.

Heziketa

«Hiru elementuk egiten dute kirola ez hezigarri:
gehiegizko lehiakortasunak,
hautatze-irizpideak eta espezializazio goiztiarrak»

Haurren itxura fisikoaz ere mintzo zara tesian.

Autoestimu fisikoak bi iturri nagusi ditu: kirolean duen trebezia-maila eta gorputzaz duen irudia eta sentipena. Lodierak, altuerak eta bestek sekulako eragina dute gure gizartean. Ikerketa ugari frogatu dute benetan duzun errendimendu-mailak baino eragin handiagoa duela duzun usteak. Beraz, oso garrantzitsua da haurrerekiko tratua, zer mezu helarazten zaion...

Sexuen artean ba al dago desberdintasunik gai horretan?

Ikerketa gehienek ez dute desberdintasunik ematen sexuen artean autokontzeptuari dagokionez. Salbuespen bakarra kirola eta ezaugarri fisikoekin lotura duten azpiesparruetan gertatzen da. Gizarteak *rol* desberdinak ezartzen dizkie neska eta mutili: mutili kirolari ona izatea, eta neskei gorputz ederra izatea. Horrek frustrazioak sortzen ditu.

Kirol-heziketa egokiak eragina al du gainerako alorretan?

Bai, norbanakoaren bizitzan autoestimuak izugarrizko garrantzia du. Eskola-errendimenduan, adibidez, adimen kontzienteak baino korrelazio handiagoa du autokontzeptuak.

Zer ezaugarri izan behar dute kirol-hezitzaile eta entrenatzaileek?

Entrenamendua ondo pasatzeko helburutzat izan dezaten lortu behar da. Ikerketen arabera, jendearen %75ek oroitzapen txarra du eskoletako soinketa-klaseez. Horri buelta emateak izan behar du gure helburu, kontuan hartuta kirol-emaitzak ez direla gure lanaren balorazioa egiteko modua.

Gurasoek zer funtzio dute honetan guztian?

Oso funtzio garrantzitsua dute. Beraien espektatibak seme-alabarengan proiektatzen dituzte. eta zenbaitetan ez dira egokienak izaten.

XVI. ERANSKINA

(13. bideo-pasartea. Euskadi Irratia: 03.41.40)

Seme-alaben kirola

Gehiegi behartzen ditugu haurrak kirola egitera, eta, era berean, hurrek gehiegi behartzen dute gorputza kirola egiterakoan. Ez da guk esandakoa, e? Kirol-lesiotan aditua den erakunde batek egin die errieta kirol-prestatzaile eta gurasoei. Iñaki Arratibel da gure kirol-mediku partikularra, eta IVEF edo soin-hezkuntzarako euskal erakundeko irakasle eta dekanorde.

- Aurkezlea Kaixo, egun on, Iñaki.
Iñaki Egun on.
Aurkezlea Joseba Etxeberria, egun on.
Joseba Bai, egun,on.
Aurkezlea Datu hauek ez zaituzte ezustean harrapatu, ezta? Alegia, esan duguna: nola Sevillako kirol-institutuko medikuek zer ohar zabaldu duten, lesioena eta...
Iñaki Ez, nik uste hori aspalditik esanda dagoela. Nik esango nuke... askotan aipatzen dena da bakarrik lesioa, lesioa bezala aipatzen dela, eta nik, irakasle bezala, mahai gainean jarri nahiko nuke lesioak eta arazoak ez daudela bakarrik fisikoak; nik uste psikologikoak ere aipatu beharko genituzkeela, ez bakarrik fisikoa —badagoela, eta garbi dagoela—, baizik eta...
Aurkezlea Hemen, gure artean ere bai?
Iñaki Bai, bai. Nik uste presioa eta izartxo-bide horretan izatekotan izaten diren arazo psikologikoak ere aipatu beharko litzatekeela. Lehenengo gauza ikusten dena da, ba, bueno, lesionatu egin dela eta arazoak dituela, baina, askotan, ez gara konturatzen nola doan eta zer arazoak izaten dituen harremanetan, jendeen harremanetan. Eta gora igotzen direnean, igotzen direnak ere, askotan, akatsak bezala ikusten dira bere pertsonalitatean nolakoak diren, eta, noski, baita ere, izan daiteke prestakuntzan ere bai. Baina prestakuntzan, lesio aldetik, neurri batean, konpondu... errazago konpontzen dira, eta gehiago ikusten dira, baina errazago konpontzen dira, eta arazo psikologikoak, harremanetan arazoak ez dira hain garbi ikusten, eta nik uste dut zailagoak direla.
Aurkezlea Zein arazo ikusten zaizkie, ba, Iñaki?
Iñaki Beno, bekoitiak, isolamendua pixka bat...
Aurkezlea Beti bere buruan helburu jakin bat izan dutelako txikitatik?
Iñaki Arazo handiena izaten da helburu hori ikusita edo lortzeko bidean bezala daudela, eta, lortzen ez denean, bizi guztia porrota, eta ikasketak utzi... Hori arazo bat da. Zenbat utzi dituzte 15, 16 urteekin ikasketak pentsatzen goi-mailako txirrindulari izango dela? Edo futbolista bat izango dela? Eta nik askotan esaten dietena... eta, hala ere, goi-mailako kirolaria izanda ere, gero zer?
Aurkezlea Zein adinetan antzeman dakioke badituela dohainak, baduela aukera, iritsiko dela norbait eta zerbait izatera kirol arlo jakin batean?
Iñaki Galdera hori beti ateratzen da, eta nik beti esaten dut 18 urterekin.
Aurkezlea 18 urterekin?
Iñaki Askotan esaten dugu: “hau ona da, hau ona aterako da”, eta bakarrik begiratzen ditugu baldintza fisikoak. Baina nik beti esaten dut, zailena goi-mailako kirolari batengan lortzerakoan zailena biak elkartzea: alde batetik, lepotik gora dagoena eta, bestetik, lepotik behera dagoena.
Joseba Lehiakortasuna berez ondo dago, baina helburu bakarra lehiakortasuna... Ikusten den bezala, nik kirol eskolarrean, ba, guraso bezala egon naiz, ez? Eta ikusten duzu... —ba, nik adibide garbia jartzen dut, ez?— Luis Fernandezek, Bilbon egon zenean, beti zeukan fama beti zarataka beti jokalariei, ez? Ba, nik ikusi ditut 11 urteko umeen entrenatzaileak edo

monitoriak, esaten, ba, "Luis Fernandez afizionatu bat da", eta 11 urteko umeei presioa sortzen "irabazi egin behar da", bronka botatzen jokaldi bat txarto egin dutelako. Eta konpetizioa ondo dago, baina hemen oinarria izan behar du formakuntza.

- Aurkezlea Entrenatzaile horien prestatzaile horien formakuntza?
Joseba Bai, entrenatzailearena, gurasoena, ikastetxearena, helburu orokor bezala, formakuntza dela, eta horren barruan konpetizioa da, gauza bat gehiago, konpetizioa ondo dago berez, baina formakuntza umearen formakuntza orokorraren parte bat bezala hartu behar dela heziketa fisikoa edo eskola-kirola edo hori, ez? Beste asignatura batetan bezala, hau da bat gehiago umearen formakuntza osoa sortzeko, ez?
- Aurkezlea Ardurarik handiena, hala ere, Joseba, norena da?
Joseba Ba, nik uste dut...
- Aurkezlea Badago ardurak partitzerik? Ez dakit hori posiblea den?
Joseba Ba, horrela, orokorrean hartuta, esango nuke Gobernuarena, ez? Baina, nik uste arduraren gizaratearena osoarena dela. Gobernuaren legea ondo dago, baina aplikatzeko baldintza asko dagoz, ez? Eta gero, gurasoen presioa handia da, ez?, nik brometan beti esaten dut ez? Eskola-kirolean guraso normalak egongo beharko lukete 20 metrora, eta guraso ez formalak aurreko tabernan. Ez hori erdi-brometan esaten da, baina, klaro...
- Iñaki Eta ilusionatzea ere ondo dago, baina bakoitzak jakin behar du ze neurritan dagoen, hori esan nahi dut. Eta umea matematikan oso ona baldin bada, guraso asko ez dira hasiko matematika erakusten, ez dakitelako. Orduan, beste baten eskutan uzten da. Ba, hau ere berdin-berdina.
- Aurkezlea Ze inpresio daukazue? Umeek gehiegi behartzen ditugu? Seguruenik horrela oro har esatea ezinezkoa izango da, baina, lesio horien kontua aipatuta eta, bide horretatik. Gehiegi behartzen da gaur egun?
- Iñaki Nik uste baiez. Alde batetik ez bakarrik kirola hartuta, baizik eta umeen bizi orokorra nahiko presionatuta edo estresantea izaten dutelako, ez?: eskolan egiten den kirola, eskola kanpoko kirola, gainera, ingelesa, gainera, musika, gainera, ez dakit zer. Ni harrituta nago, baina azken urtetan, igual, ume gehiago goi-entrenamendu-sindrome batekin ikusi ditut, kirolari profesionalak baino. Eta hori ez da normala. Eta, gainera, gero gurasoek nahi dugu ba, negua delako eskiatzera eraman edo mendira eraman. Orduan, esan nahi du, normalean edozein kirolariekin egiten ez duguna umeekin egiten dugu
- Joseba Eta gero....
- Iñaki Hori baloratu egin behar da
- Joseba Eta gero irakurri egin behar dutela esaten dugu, Interneten ere sartu behar dutela eta ez dakit noiz lo egingo duten edo deskantsatu, ez?
- Aurkezlea bai, gizarajoak
- Iñaki Eta nik bukatzeko, bakarrik esan nahi nuke, maila horietan 11, 12,13 14 urteetan, umeak ez dira helduak tamaina txikian, eta hazten ari direla eta garai bakoitzak bere entrenatzeko behar den ahalmena dela, ez denak hartu goiko eskemak eta behera jaitsi. Ez, ez dira txikik, tamaina txikiagoak, ez, hazten ari dira
- Aurkezlea Hazten ari diren pertsonak dira. Joseba Etxebarria, Iñaki Arratibel, eskerrik asko

XVII. ERANSKINA

Seme-alabekin kirola egiteak familia barneko harremana hobetzen laguntzen du

Seme-alabekin kirola egiteak familia barneko harremana hobetzen laguntzen du

Acción Familiar elkarteak senitartean kirola egiteko jaialdia antolatu du 20rako Bilbon

Seme-alabekin kirola egin eta jolastea osasuntsua da, bai fisikoki, bai familia barruko komunikazioa eta harremana hobetzeko. Hala uste du, behintzat, Bizkaiko Acción Familiar elkarteak eta, hori dela eta, sentsibilizazio kanpaina jarriko du martxan, hilaren 15a Nazioarteko Familia Eguna delako. «Mugi zaitez familiarekin» lelopean maiatzaren 20an Bilboko Doña Casilda parkean egingo den kirol-jaialdia izango da sentsibilizazio-kanpaina horren ekimen nagusia.

Aitziber LASKIBAR | BILBO

«Ni ere ume bihurria izan nintzen, eta sarritan izaten nituen gurasoekin tira-birak; haserretu, eta egunetan hitzik egin gabe egoten nintzen. Hala ere, astebururo joaten nintzen aitarekin palan jolastera, eta horrek gure arteko harremana estutzeko balio izaten zuen, inoiz ez baikenion hutsik egiten hitzordu hari». Horrela azaldu zituen Joseba Etxebarria, Soin Hezkuntzarako Euskal Erakundeko zuzendariak kirola familian egitearekin lor daitezkeen komunikazio-onurak.

Komunikazioa hobetzeko baliagarria da, hain zuzen, Luis Herrando, Bizkaiko Acción Familiar erakundeko lehendakariaren esanetan, senitartean kirola egitea; komunikazio horrek, gainera, guraso eta seme-alaben arteko harremana hobetzen eta estutzen du haren hitzetan.

Izan ere, senide elkarrearen ustez, familiarean kirola egiteak hainbat aukera eskaintzen dizkie gurasoei zein seme-alabei. Gurasoei dagokienez, haurrak hobeto ezagutzeko ahalbidea ematen du, balio jakin batzuk erakusteko aukera eta guraso eta seme-alaben artean bestelako harreman bat izatekoa, laguntasuna sendotzeko baliabide egokia baita.

Haurrei, bestalde, gurasoez ezagutzen ez dituzten alde berriak ezagutzeko aukera ematen die, haien trebetasunak gurasoei erakusteko, ohitura eta jarrera osasuntsu baten aldeko zaletasuna hartzeko eta gurasoengandik hurbilago sentitzeko.

Horregatik guztiagatik, Acción Familiar elkarteak sentsibilizazio-kanpaina bat jarriko du abian maiatzaren 15etik 21era bitartean, 15a Familiaren Nazioarteko Eguna dela aitzakiatzat harturik. 110.000 eskuorritik gora banatuko dituzte horretarako eskoletan, guraso-elkarteen, ikastola- zein eskola-elkarteen eta familia-taldean laguntzaz.

Hamar gomendio ematen ditu eskuorriak kirolaren ikuspegi honekin loturik: kirola familian egiteko ohitura sortzea, zaletasunak elkarbanatzea, kirola komunikazioa sendotzeko erabiltzea, seme-alabei protagonismoa ematea, beren burua zein besteak errespetatzen erakustea, aisiari eta ahaleginari irabazteari baino garrantzi gehiago ematea, jokoan sormena eta elkarlana sustatzea, denbora libre baliatzea eta familia-bizitzaren kalitatea eta osasuna bultzatzea.

Maiatzaren 20a izango da kanpainaren egun nagusia, goiz osoan zehar kirol-jaialdia egingo baita Bilboko Doña Casilda parkean. Jaialdi horretan, familiarean egiteko joko-sorta, sokatira, zaku-lasterketa eta antzeko kirol-joko ugari egongo dira. Hainbat kirolari ospetsu ere izango dira bertan, kanpainari sostengua eman eta autografoak sinatzen.

Hilaren 21ean, «Kirol hezitzailea, guraso kirolariak» izeneko mahai-inguruak emango dio amaiera kanpainari.